

Kultura

Zapatuan Landako Gunean antolatuko duten Kalerarock jaialdiko sarrera guztiak salduta > 11



Korrikaren azken bost egunetarako erronka

Iker Torrek, Lander Arrizabalagak eta Iker Aranek korrikaren azken bost egunak osorik egingo dituzte arineketan, erreleboka > 3



Kepa Aginako

“Esperientzia berria eta polita izan daitekeela sentitu dut Georgian” > 15

Ustaritzek aste bi daroaz Dinamo Tbilisigaz entrenatzen

Futbolak beste aukerarik ez ziola emango uste zuenean, Dinamo Tbilisik eskaintza egin dio Ustaritz Aldekoa-Otalarra futbol jokalarari abadiñarrari. Orain urte batzuk Athleticeko jokalarari zela Georgiarren aurka jokatu zutenean ezagutu zuen taldea. Gelditzen den denboraldirako eta beste bi urterako kontratua sinatu du Ustaritzek. Talde gazte eta bizia dela dio: “Sentsazio bila joan naiz. Esperientzia berria eta polita izan daitekeela sentitu dut”.



Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofiziala de Idiomas

MATRIKULA EPEA:

2013ko otsailaren 6tik 28ra
(13:00ak arte)

MATRIKULA LIBREA 2012-13

EUSKARA, FRANTSESA, INGELESA,
ALEMANA

MATRIKULA ON-LINE EGINGO DA:
Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute, honako webgunearen bidez:

www.eoidurango.net

Berriz > 4

Berrizko toponimia batzen duen mapa aurkeztu du udalak

Durango > 2

LABek Komentukaleko egoitza berria inauguratuko du gaur

Elorrio > 2

Gaztetxearen 25. urteurrena ospatzeko jai erraldoia prest

Mallabia > 6

Ortu ekologikoen inguruko ikastaroak antolatu ditu udalak



➤ Herririk herri

➤ DURANGO

Larrinagatxuko bidea itxita dago, lur jausia dela-eta

Joan zen bariku goizaldean gertatu zen 10.000 metro kubikoko lur-jausia

➤ JONE GUENETXEA

Joan zen barikuan, gauerdialdera, Larrinagatxu auzoko bizilagunek zarata gogor bat entzun zuten kanpoan. Arineketan irten eta arbola mordoa bide erdian botata ikusi zituztela azaldu dute. Udaltzaingoari deitu zioten, eta gertaeraren berri eman zuten. Eguna argitzean, lur-jausiak errepidean eragindako ondorioak argiago ikusi zituzten.

Durangoko Udalak jakitera eman duenez, 10.000 metro kubiko lur erori ziren errepidera. Luizia Fumbarri enpresak 80ko eta 90eko hamarkadetan zepaz eta hondarrez egindako lur-betetzetik etorri dela baieztatu du udalak. Udaleko teknikariek eta lurraren kutxadura aztertzen diharduten adituek diotenez, galdategiaren lur-betetzeak ur asko xurgatu duelako eta lur horien drainatzea oso eskasa dela-

ko gertatu da luizia. Udal ordezkariak aurreratu dutenez, “lur-betetzea egin zenean erabili zen materialak zaildu egiten du zonalde hori bere jatorrira eroatea, izan ere han erabili ziren hondarrik ezin dira edozein lekutan pilatu”. Bidea konpontzea zaila izango dela gaineratu dute. Hasi dira lurra kentzen, baina guztia erretiratu eta erreka bere lekura eroan arte, ezingo da bidea ireki. Baserri bateko bizilagunak Izurtzako bidea erabiltzen dabilta.

Lur-jausiak albotik doan erreka estali zuen, eta gainezka egitean gertatu zen luizia. Auzokideek diotenez “erreka hor egonda, ez dakigu arazoa zelan konponduko duten”.

Hondakindegia

Orain urte batzuk Fumbarrik fundizio materialagaz betelana egiten ziharduenean, kontrol bako hondakindegia moduan erabiltzen ei zuten batzuek: “Tailerretako materiala ere bertara botatzen zuten batzuek”.



Larrinagatxuko bidean ateratako irudia, joan zen zapatuan. Kepa Aginako

LAB sindikatuak egoitza berria zabalduko du gaur arratsaldean

➤ MARKEL ONAINDIA

LAB sindikatuak egoitza berria edukiko du Durangon, gaurtik aurrera. Sindikatuko ordezkariak adierazi dutenez, Durangaldeko afiliatuen eta delegatuen kopurua asko hazi da azken urteetan: “2003. urtean 1.619 afiliatu genituen eskualdean. Gaur egun, berriz, 240 delegatu inguru eta 2.737 afiliatu izatera iritsi gara”. Hazkunde hori LABeko kide guztiei eskerrak jazo dela gaineratu dute ordezkariak. Kide kopuruaren igoea dela-eta, lokala txiki geratu zaiela azaldu dute, eta ondorioz, lekuz aldatzeko beharra daukela. Komentukalean, 9. zenbakian zabalduko dute bulego berria.

Gaur, arratsaldeko 18:30ean egingo dute lokal berriaren inaugurazio ekitaldia, eta Ainhoa Etxaide idazkari nagusia ere bertan egongo dela adierazi dute LABeko ordezkariak.

Alberdiko txorizoak, finalista ‘Villa de Bilbao’-n

“Errekonozimendu garrantzitsua da”, adierazi du Alberdik; 94 aurkeztu eta sei izan dira finalista

➤ M.O.

Alberdi harategian egindako txorizok arrakasta handia eduki dute *Villa de Bilbao* lehiaketan. Otsailaren 7an egindako sari banaketan finalistaren oroigarria jaso zuen Txema Alberdik. 94 aurkeztu eta sei izan dira finalista.

“Errekonozimendu garrantzitsua da”, adierazi du Alberdik. Bere ustez, txorizo onak egiteko, baserriko txerriagaz eta kariñoaz egitea da giltza. 2009an odoloste onenaren saria jaso zuen Alberdik, eta beste hainbatetan ere izan da finalista.



Alberdi, bere harategian, oroigarria eskuetan daukala.

Basurkok eroan du Durangoko oroigarria

Montevideo eta Durangoren arteko harremanak estutu gura dituztela azaldu dute ekitaldian



Unai Basurko eta Ana Olivera intendentea harrera ekitaldian.

➤ JONE GUENETXEA

Ana Olivera Montevideoko intendenteak harrera egin zion Pakea Bizkaiako tripulazioari joan zen astelehenean. Belaontziak Montevideon egin du azken geldialdia, ozeano atlantiko zeharkatu aurretik. Opari bereziagaz joan zen Unai Basurko Montevideoko gobernua- ren egoitzara. Izan ere, Durangoko Udalak emandako oroigarria eman zion Oliverari.

Bruno Mauricio Zabala durangarra hiriaren fundatzailea izan zenez, Montevideoren eta Durangoren arteko harremanak estutu gura dituztela azaldu dute.

Ekitaldira Haize Hegoa eta Euskaro Montevideoko euskal etxeetako ordezkariak ere bertaratu ziren. Pakea Bizkaiako kapitainak espedizioaren berri eman ondoren, belaontzia bisitatzera joan ziren.

➤ ELORRIO

25 urte ospatzeko, “jai erraldoia” Gaztetxean

➤ M.O.

1988an okupatu zuten hainbat gaztek Elorrioko Gaztetxea. Geroztik, hainbat dira bertan jazotako istorioak, baita bertatik igarotako gazteen belaunaldiak ere. Lagun horiek guztiak omentzeko jaialdia egingo dute martxoaren 2an. Azken asteetan belaunaldi horietako kideekin batzen ibili dira Gaztetxeko kideak, ibilbidea erreparatu eta egoez berba egiteko.

Antolatzaileek esan dutenez, bazkariak eta familia-argazkiak hartuko dute garrantzia egunean zehar. Gauera ere badaukate eskaintza: kontzertua egongo da, Iheskide, Ze Esatek! eta Willis Drummond taldeekin. Sarrerak salgai daude Gaztetxean bertan, edota Parra eta Portalekua tabernetan.

Argiñetako aurkikuntzak ikusteko, museora bisita

➤ M.O.

Udalak Bilboko Arkeologi museora bisita antolatu du martxoaren 2rako. Argiñetako indusketetako aurkikuntzak ikusi ahal izango dituzte herritarrek. “Ekimen honen helburua da 2012ko indusketan topatu diren elementuen garrantzia herritarrei jakinaraztea”, azaldu dute arduradunek. Arkeologi Museoak normalean erakusten ez dituen artxibo zein laborategiak bisitatuko dituzte, esaterako.

Argiñetan topatutako elementuak zelan garbitu, katalogatu eta artxibatzen dituzten ezagutu ahal izango dute elorriarrek. Iturri kultur etxean eman behar dute izena, eta hiru euro ipiniko dituzte bidaia eta bisita ordaintzeko. 16 urtetik gorakoak apuntatu ahal dira.

> DURANGALDEA

Korrikaren lekuko, kirola eta euskara batzeko bost eguneko erronkan

Torrek, Arrizabalagak eta Aranak Korrika 18-ren azken bost egunak osorik egingo dituzte lasterka

> MARKEL ONAINDIA

Iker Torre, Lander Arrizabalaga eta Iker Arana korrikalariak erronka berezia prestatzen dabilta Korrikaren aurtengo ediziorako. AEK-k eratzen duen euskararen aldeko ekimenean, azkeneko bost egunak osorik egingo dituzte lasterka, errelebotan. Martxoaren 20tik 24ra, Ubidean hartu eta Baionara arte. Bakoitzak, hiru ordu korrika eta sei atseden. Kirolenek, kirol irakaskuntzen ikastetxe publikoak, bultzatu du proiektua. Gainera, Durangoko Ibaizabal eta Elorrioko Txintxirri ikastolen babesa ere badaukate hiru gazteek. Duela sei hilabete hasi ziren prestatzen, eta dagoeneko azken txanpan sartuta daude, erronka heltzeko gogotsu.

Torrek (Abadiño, 35 urte) kirol osasungarriaren inguruko ikastaroak ematen ditu Kirolenen, eta Ibaizabal zein Txintxirriko irakasle ere bada. Jarduera fisiko osasungarria sustatzen dutela dio Torrek, eta gai horre-

gaz lotutako esperimentua dela euren: "Proban zehar hainbat parametro neurtzen joango gara, ikusteko gure osasuna eta prestakuntza fisikoa egokia izan dela horretarako". Planifikazio zehatza daukate; medikuagaz egon dira, analisiak egin dituzte, nutrizioa zaintzen dabilta, entrenamendu bereziak egiten ari dira... Hori bai, euskararen aldeko erronka ere badela ahaztu barik: "Gure bidea kirola da, eta kirola euskaraz bizi gura dugu", esan du Torrek.

Erronken parekotasuna

Euren erronka, euskara ikasten dabilta nek daukatenagaz partatu du Aranak (Durango, 36 urte): "Euskara ikastea oso gaitza dela esaten da, ezinezkoa dela, erronka hau legez. Guk adierazi gura duguna da gure erronka, ondo prestatuta, egin ahal dela, eta euskara ere ikasi ahal dela". Hiru korrikalariak diote giltza esfortzuan eta motibazioan dagoela.



Arrizabalaga, Torre eta Arana, ezkerretik eskumara, Kirolerrota gimnasioan. K.A.

Berbak zabaltzeko aukera

Lander Arrizabalagak (Iurreta, 30 urte) oinarri horien baten baturaz egin du berba: "Politika da, gauza biak lotzen direlako, euskara eta kirola". Arrizabalagaren ustez, kirol arloko berba teknikoak euskaraz zabaltzen hasteko aukera on bat izan ahal da ekimen hau. Torrek gaineratu du horixe dela Kiroleneren helburuetako bat ere: "Kirolenen saiatzen gara hitz teknikoak euskaraz sartzeko".

Hiru korrikalariak diote giltza esfortzuan eta motibazioan dagoela

Iker Torre: "Gure bidea kirola da, eta kirola euskaraz bizi gura dugu"

Kirolerrota gimnasioan buru belarri dabilta prestatzen. Astean 200 kilometro egiten dituzte arineketan, azaldu dutenez. Proba gogorra dela-eta, Edu Lakuntza zornotzara ordezkoko eduki dute badaezpada. Baina, lorpenean sinisten dute: "Ez gabiltza inolako astakeriarik egiten; gauzak egoki planifikatuz gero, norberaren buruari proposatutako erronkak bete ahal dira". Durangaldetik pasatzen ere ikusi ahal izango dira, Korrikaren lekuko zuzen hauek.

Martxoaren 20an helduko da Korrika

Korrika 18 Andoainen hasiko da martxoaren 14an, eta handik hamar egunera amaituko da Baionan

Andoainen hasiko da aurtengo Korrika martxoaren 14an, eta Baionan amaituko da hil bereko 24an. Durangaldera martxoaren 20an, eguaztenez, sartuko da Otxandiotik. Korrikaren mezua, *Eman euskara elkarri* izango da. Honela arrazoitu dute

AEK-ko kideek: "Euskarak euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko hizkuntza izan behar duelako". Otsailaren 6an aurkeztu zuten Korrika 18-ren ibilbidea AEK-ko arduradunek. Aurten, mugikorretarako aplikazio bat prestatu dute, Korrika herri ba-

koitzetik zer distantziara eta denborara datorren jakiteko.

KORRIKAREN ORDUTEGIA

Otxandio - 11:58
Abadiño - 13:00
Mañaria - 13:34
Izurtza - 14:12
Durango - 14:24
Iurreta - 14:52
Durango - 15:01
Atxondo - 15:46
Elorrio - 16:02
Berriz - 16:53
Zaldibar - 17:19
Mallabia - 17:43



ALCONADA AUTOBUSAK



Joan-etorriak **SAGARDOATEGIETARA**, ezteguetara, Errioxara, elurretara, leku turistikoetara...

Profesionalak gara lantegietarako, ikastegietarako eta kirol-taldeen partiduetarako joan-etorrietan. Mendi-taldeak ere eramaten ditugu.

Beti prezio hobereana!
Egin kontsulta, eta aurrekontua egingo dizugu.

www.autobusesermua.es

Tel.: 943 172 415 - 610 283 939 • info@autobusesermua.es - busalconada@gmail.com



- Oinetako patologiak
- Neurrira egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien, 10 behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podinara Urreta Jainaga

> BERRIZ

Auzo eta baserri izenen idatzizko forma zehaztu dute

Bost urteko ikerketaren ostean, Berrizko mapa toponimikoa argitaratu dute 634 leku-izenekin

> AMAIA UGALDE

Betidanik daudela uste dugun izenek badute jaiotza bat. Olakueta, esaterako, trenak bihurtu zuen auzo-izen. Izan ere, tren 1877an Berrizera etorri zenean, Deustun bazegoen Berriz izeneko geltoki bat, bertako auzo batean. Izen bereko geltoki bi ezin ziren egon, eta horregatik, Berrizkoak trenbide alboko Olakueta jauregiaren izena hartu, eta Berriz-Olakueta izena ipini zioten herriko geltokiari.

Auzoen eta baserrien historiari jo eta gero, bost urteko lanaren ostean amaitu dute Berrizko mapa toponimikoa. Jon Ander Ramos ikerlariak herriko 643 leku-izen finkatu ditu. Laster udalak 19 panel ipiniko ditu au-

zoetako hainbat puntutan, baserrien izen normalizatuekin. Izenekin batera, euren ahozko formak, esanahiaren azterketa eta etxeen historia batu ditu Ramosek, eta udan liburu batean argitaratzea aurreikusitako dute.

Leku izenen ahozko forma, esanahia eta etxeen historiarekin liburu bat argitaratuko dute udan

Bere ikerketan, Euskaltzaindiko Mikel Gorrotxategi izan du tutore Ramosek. Artxiboko lana egin du Bizkaiko XVIII. mende-



Jon Ander Ramos, Orland Isoird eta Mikel Gorrotxategi eguaztenean egindako aurkezpenean.

ko etxeen erroldetatik hasi eta gaur egungo dokumentuetaraino. Horrez gainera, Ramos ikerlaria hainbat herritar elkarrizketatzen jardun du baserrien eta auzoetako txokoen izenak zehazteko.

Datozen bi asteetan 19 panel ipiniko dituzte auzoetan baserrien izen normalizatuekin

Izenak idatzizkorako finkatuta, baserrien zenbakiak ordenatu dituztela azaldu du Orland Isoird alkateak. Amaitzean den GPS sistema bategaz larrialdi kasuetan baserriak lokalizatzeko moduan egongo dira laster.



“Gehienetan, XX. mendeko erabileran aldatu dira leku izenen formak”

Jon Ander Ramos arrasatearrak dokumentazio lana egin eta gero, berriztarregaz egindako elkarrizketen berri eman du.

Zelako laguntza jaso duzu berriztarregandik?

Ondo, leku batzuetan oso informatzaile onak eduki ditut, eta toponimo asko esan dizkidate. Beste leku batzuetan ez da hain erraza izan, belaunaldiz belaunaldi

izen asko ez direlako transmititu: jendeak basoan barik fabrikatzen egiten du lan orain...

Tarte handia dago ahozko formatik idatzizko forma egokira?

Askok badakite eurek modu batean esan arren beste modu batean idazten dela. Beste batzuetan, izena ahoz bakarrik heldu da, eta pentsatzen dute betidanik dela modu horretan. Gehienetan, XX. mendeko erabileran

aldatutako kontuak dira. Adibidez, Andikoa-Aparizio baserrikoek izena gerra ostean ipinitakoa eta erdalkeria zela uste zuten, baina lehenengo artxiboetan ere izen hori ageri da.

Kofradiei buruz galdetuta erantzun desberdinak jaso dituzu.

Kofradiak zortzi, zazpi, bost... zirela erantzuten zidaten, eta artxiboetan seidirela ikusidut: Andikoa, Eitua, Murgoitio, Okango, Sallobente-Mendibil eta Sarria. Mapa batzuetan, Olakueta ere kofradia legez agertzen da, baina ez. Mugen arteko kontuak ere definitu dira: batzuk ez zekiten Eitua eta Sallobenteko muga zehatzak zeintzuk ziren.

> ATXONDO

Sagardotegira eta Adarra mendira irteera egingo dute

Asuntze taldeak antolatu du martxoaren 9rako

> JOSEBA DERTEANO

Asuntze mendi taldeak egunpasa antolatu du martxoaren 9rako. Goizean, Adarra mendira (Urnieta inguruan) joango dira, eta eguerdian, Hernaniko sagardo-

Adarra menditik jaiositakoan, dutxa zerbitzua eskainiko dute Andoaingo kiroldegian sagardotegira joan aurretik.

tegi batera. Autobusa 08:30ean irtengo da Apatako plazatik. Izena emateko 50 euro ordaindu behar da, eta martxoaren 1ean amaituko da epea. Prezioan sartuta daude joan-etorria, dutxa eta sagardotegia. Adarra menditik jaitsi ostean, dutxa zerbitzua eskainiko dute Andoaingo kiroldegian. Izena emateko telefono bat ipini dute: 685 700 303.

Iaz antolatu zuten lehenengoz sagardotegirako irteera, eta 15 lagun joan ziren. Orduko hartan, Aiako harriak bisitatu zituzten sagardotegira joan aurretik.

> OTXANDIO

2.885 euro batu dituzte Otxandion hildako senegaldar bat aberriratzeko

Joan zen asteko eguaztenean hil zen Elhadji Niang senegaldarra

> JOSEBA DERTEANO

Joan zen eguaztenean, Otxandioko bere etxean hilda aurkitu zuten 26 urteko Elhadji Niang senegaldarra. Aulasa enpresan lan egiten zuen, eta egun hartan lanera joan ez zenez, bere lankideak etxera joan zitzaizkion, kezkatuta. Atea zabaldu zuten, baina, hilda aurkitu zuten gaztea.

Bere senitarteko batek enpresa berean lan egiten du, eta Euskal Herrian zehar ere baditu beste senitarteko batzuk. Gorpua, kosta ala kosta, Sene-

galera aberriratu gura zutela adierazi zuten haiek. Orduan, hainbat otxandiarren ekimeenez, gorpua aberriratzeko behar ziren 6.000 euroak batzeko diru bilketa abiatu zuten. As-

Falta zen dirua senitarkoek ipini dute eta gorpua atzo eraman zuten Senagalera

tebetez itsulipakoak egon dira herriko taberna eta komertzioetan, aportazioa jasotzeko. Lan egiten zuen enpresan ere, diru bilketa egin dute. Guztira, 2.885 euro batu dituzte, eta Otxandioko elizak 285 euro gaz lagun du. Falta zen dirua senitarkoek ipini dute. Gorpua atzo eraman zuten Senagalera.

Gorpuari autopsia egin dioten adituek oraindik ez diete senitartekoei argitu heriotza zerk eragin dion. Edozelan ere, ez zuen indarkeria arrastorik, eta bere-berez hil dela uste dute.

Zuen eztegia San Nikolas uhartearen parean



Bizkaiko txoko honetako hondartzaren alboan, itsasoaren parean eta ikuspegi ezin hobeeekin, Aisia Lekeitiok aukera ugari eskaintzen ditu zuen eztegia ospakizun berezia eta berdingabea izan dadin. Terraza, bikaina da zeremonia zibila egiteko, inguru paregabea dago-eta. Ezteguko menuan ongietorriko cocktail aparta eta menu goxo-goxoa daude dastagai, eta gonbidatu guztiei gozaraziko die seguru, kalitate handiko produktuekin eginak baitaude. Bestalde, langileek eginahalak egingo dituzte zuen eztegia amestu bezalakoa izan dadin, eta horretarako, gure aretoak ordu txikitara arte erabili ahal izango dituzue. Zuen ezteguko alderdi guztiak bakarrak eta bereziak izango dira, zalantzarik gabe; izan ere, Aisia Lekeitio gustu, nahi eta aurrekontu guztietara egokitzen da.



Banketeari dagokionez, azpimarratzekoa da gure menuek duten kalitate gastronomikoa. Sukaldeko zuzendari dabil Javier Ugarte, eta bereziki zaintzen ditu kalitate goreneko lehengaiak, plater tradizional eta zaporetsuak prestatzeko. Jantokian, lantalde profesionala ari da Edurne Hortaren zuzendaritzapean, oturuntza primerakoa izan dadin.

Instalazioen inguru zoragarriaz gain, aipatzekoak dira areto handi eta zabalak: 300 lagundik gora sartzen dira. Gainera, aretoak zabalik daude gauerdia ostera arte, ospakizuna nahi beste luzatzeko eta leku berean hasi eta amaitzeko. Ezin ahaztu aretoetako ikuspegiak, gonbidatua guztiak liluratzeko modukoak.

Eskatu bisita bat inolako konpromiso barik, eta egiaztatu Aisia Lekeitiok eskaintzen dizuen guztia.



BI BONU GASTRONOMIKO ZOZKETAN

Zein taldek fitxatu du Ustaritz Aldekoa-Otalora futbol jokalaririk abadiñarra ?

URTARRILEKO IRABAZLEAK:
Javier Elorriaga eta Susana Bakedano. Zorionak!

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org-ra edo Anboto Astekaria - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta



> ZALDIBAR

Eskola Kontseiluak babestu du zuzendariaren oharra

“Eskolako eraikin berri barik geratu gara”, dio, besteak beste, zuzendariak



Urte biko umeentzako eraikin berriari lotuta 2004tik hona gertatutakoaren kronologia azaldu diete gurasoei oharrean.

> ITSASO ESTEBAN

Urte biko umeentzako eraikin berriari lotuta 2004tik hona gertatutakoaren kronologia azaltzen duen oharra kaleratu du Zaldibarko herri eskolako zuzendariak. Eskola Kontseiluak babestu egin du ohar horretan esaten dena. “Sei urte itxaron ondoren, eta aurreko lortzetik oso hurbil egon arren, azken momentuan urte biko ikasleentzako eraikin berri barik gelditu

gara”, dio oharrak. “Udalak eraikin hori zor dio eskolari”.

Eskola Kontseiluko kideek “tristuraz eta suminduta” hartu dute eskola berriaren proiektuaren inguruan alderdi politikoen artean sortu den eztabaida: “Gurasook ez dugu nahi umeak barrakoiengan edukitzea, eta ez dugu ulertzen zergatik ipintzen duen EA.Jk hainbeste traba”.

Eraikin berriko lanak ez zirela 2012an hasiko jakin zuenean,

Jaurlaritzari batzarra eskatu zion Eskola Kontseiluak. Besteak beste, aurreko gobernu taldeak hartutako konpromisoa jasotzen duen dokumentazioa eskuratu dute: eraikin berria udalak eraikiko zuela zioena.

“Iaz ezin izan ditugu lanak abiatu, baina asmoa da 2013an hastea”, dio Arantza Baigorri alkateak: “Zuzendariaren oharra udal gobernuak gezurrik ez duela esan baieztatzen du”.

> IZURTZA

Otsaila amaitu aurretik prest egongo da komun berria jubilatuen etxean

Komun biak zeuden tokian, komun handiago bat egiten ari dira, irisgarritasun neurrietara egokitua

> JOSEBA DERTEANO

Jubilatuen etxeko komuneko lanak amaituta egongo dira martxoa hasten denerako. Orain arte, komun bi zeuden, eta lanak amaitzen direnean bat egongo da, lehengoak baino handiagoa eta denentzako erabilgarria. Izan ere, komun berria irisgarritasun neurri guztietara egokituta egongo da: ate handiagoa izango du, helduleku bat... Horrez gainera, komun berriari dutxa bat gehitu-

ko diote (aurreko komunek ez zuten dutxarik), eta horrela jubilatuen etxeko txoko hartan sortu den espazioari ahalik etekinik handiena aterako diote.

Komun berriak dutxa bat ere izango du, han sortu den espazioa aprobeztatuta

Jubilatuen etxeko komuneko lan horiek burutzeraz 10.232 euroko diru atala bideratu du Izurtzako Udalak. Dirulaguntza bat ere jaso dute, gastuei aurre egiteko. Hain zuzen, 5.723 euroko laguntza jaso dute Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Landa Garapen Sailak sustatzen duen Erein programaren bitartez.

Udalak 10.232 euro bideratu ditu lan horietara; Jaurlaritzatik 5.723 euroko laguntza jaso dute

> MALLABIA

Baratze ekologikoak zelan landu ikasteko tailerrak Kultur Etxean

Udalak ortu ekologikoak atondu gura ditu; erabiltzaileentzako ikastaroak antolatatu ditu

> JONE GUENETXEA

Mallabiko Udalak baratze ekologikoen ekimena jarri du martxan. 19 ortu eskaini ditu, eta dagoeneko 13 eskari jaso dituzte. Baratze bakoitzak 60 metro karratu ditu, eta kasu batzuetan familia osoaren artean jardungo dutela jakitera eman du Xabat Areitioaurtena zinegotziak. “Eduki dugun eguraldi petralak ez digu aukerarik eman ortuen gunea atontzeko, baina martxoaren bukaerarako dena prest egotea espero dugu”, gaineratu du.

Bien bitartean, ortuetan lanari ekiteko oinarritzko formakuntza emango du udalak. Ordu eta erdiko lau saiotan, 18:30etik 20:00etara, Kultur Etxean ortugintza ekologikoaren oinarriak azalduko dituzte. Lehenengo tailerra Ramon

Bengoa nekazaritza ekologikoan diharduen baserritarrak emango du martxoaren 28an, *Zergatik nekazaritza ekologikoa?* izenburupean. Martxoaren 7an, berriz, Asun Mendibek eta Haritz Maiorak *Lurra eta labore motak* hartuko dituzte berberak, luraren ezauzgarri fisiko eta kimikoak, luraren maneia eta ongarraren gaia landuz. Martxoaren 14an, Haritz Maiorak eta Unai Aranguren EHNEko adituak landaketa buruz berba egingo dute, sasoiaren sasoiko produktuei buruz. Leire Ibarretxe Biolurreko aholkularia martxoaren 21ean joango da Mallabira, *Baratzeen maneia* azaltzeko. Martxoaren 23an Larrabetzuko Jose Antonio Lekueren baserria bisitatuko dute, bere ortuko esperientzia ezagutzeko.

> ABADIÑO

Kiroldegiaren erabiltzaile kopurua handitzeko kanpaina

Herritarrek euren lagunak izena ematera bultzatzea gura du horregaz Abadiñoako Udalak

> I.E.

Kiroldegiko erabiltzaile kopurua gehitzeko helburuagaz ipini du Abadiñoako Udalak deskontu kanpaina martxan. Horrela, otsailaren 24ra arte, 10 euroko deskontua egingo diete kiroldegiko ekintzaren batean izena emateko lagun bat ekartzen duten kiroldegiko erabiltzaileei.

Gobernu taldeak ohar batean jakitera eman duenez, ekainera arteko konpromisoa hartu beharko du, gutxienez, izena ematen duenak.

Kiroldegiko erabiltzaile berriei begirako eskaintza berezia ere egin du Abadiñoako Udalak: otsail eta martxoko kuota ordaindu beharrik ez dute izango erabiltzaile berriek, baina bai ordea apirilatik ekainera artekoa.

Otsailaren 24ra arte, 10 euroko deskontua egingo diete kiroldegira lagun bat ekartzen duenari

Udaleko gobernu taldeak azaldu duenez, gimnasioan izena ematen dutenei zein kiroldegiko bestelako ekimenterako inskripzioa egiten dutenei dago zuzenduta kanpaina hau: pilates, gap, fit pilates, power pump, cardio box, latin mix, spinning, aerodance, street dance, funky gazte eta strenching.

Kiroldegiko eskaintzaren berri ahalik eta herritar gehienek izan dezaten ipini dute kanpaina martxan

Igerilekuko ikastaroetan dihardutenentzat ere 10 euroko deskontua jasotzen du kanpainak, baina ez ditu barnean hartzen igerilekuko abonak eta igerian ikasteko oinarritzko ikastaroak.

Udal kiroldegiko eskaintzaren berri ahalik eta herritar gehienek izan dezaten ipini du, azaldu duenez, Abadiñoako Udalak ekimen hau martxan.

> MAÑARIA

‘Ura’ gaitzat hartuta egingo dute argazki lehiaketa

> MARKEL ONAINDIA

Mañariko Udalak argazki lehiaketa antolatu du, eta *ura* izango da argazkietan islatu beharreko gaia. Lehiaketan 12 urtetik gorako edozeinek parte hartu ahal izango du, maila bitan banatuta: 17 urtera artekoak, eta hortik gorakoak.

Martxoaren 1etik 28ra aurkeztu behar dira lanak udal txean. Bakoitzak argazki bi eroan ahal izango ditu gehienez, antolatzaileek esan dutenez. Otsailean eta martxoan zehar Mañarian ateratako argazkiak izan beharko dira, koloretan. Gazteek 100 euro izango dituzte jokoan, eta helduek 200. Epaimahai tekniko batek bost argazki aukeratuko ditu, eta apirilean erakusketan ipiniko ditu udalak. Herritarren botoek erabakiko dute zein den bost horien artean argazkirik onena.

> DURANGALDEA ASTEON

Utzi egin diote desagertutako gizona bilatzeari

Ertzaintzak jakin eragin duenez, pasa den astean Abadiño-ko Murueta inguruan desagertutako gizonaren bilaketa bertan behera utzi dute. Adierazi dutenez, nora joan zen ikertzen jarraituko dute, eta informazio gehiago edukitzen dutenean ekingo diote berriro bilaketari.

Udalaren 9 pisuak etxe kaleratuei uzteko eskatu du PSE-EEK

Durangoko Alderdi Sozialistak udalaren jabetzakoak diren bederati pisuak atontzeko eta beraien etxeetatik kaleratu dituzten familien esku uzteko eskatu du. Pilar Rios zinegotziak aurkeztutako proposamenak, udalaren aldetik bitartekaritzarako protokoloa zehaztea eskatzen du.

Manifestaziorako deia egin du M15 mugimenduak

Durangaldeko M15 plataformak zapatu honetan Bilbora joateko deia luzatu du, *Euren kolpeen aurrean, geuk erantzun* lelopean egingo den manifestaziora. Alderrikapen nagusia "finantzek eragindako estatu kolpea salatzea" da. 18:00etan Jesusen Bihotzeko PPren egoitzatik irtengo dute.

Hamahiru umek eman dute izena Abadiñon zapatuetan hasiko duten ludotekan

Traña-Matienako Errota kultur etxean ludoteka saioak hasiko dituzte, eta horietara Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako hamahiru eskola-ume batuko dira. Zapatu goizetan egingo dituzte saioak, 10:00etatik 12:00etara. Berbaro elkarteak diseinatu eta koordinatuko du jolas eta tailerren programa, eta hamaika saio daude aurreikusita. Eskolaz kanpo euskara sustatzea da ludotekaren helburu nagusietako bat.

> IURRETA

Lur-jausia izan da Lukupeko Trokara eta Luku Txikira bidean

Goiuriko auzokideek ohartarazi dute "baimen gabe" egindako bidea dela

> AITZIBER BASAURI

Goiuriko Lukupeko Troka eta Luku Txiki ibarbideetara heltzeko bidean gertatutako lur-jausiaz ohartarazi dute Goiuriko auzokideek. Salatu dutenez,

"baimen gabe eta drainatze egokirik gabe" egindako bidean izan da luizia. "Instituzioetan aurkeztutako adituen-txostenek iragarri moduan gertatu da lurretena, eta une horretan ez zegoen inor bertan. Beste behin ere, defendatzen dugun naturak arrazoia eman digu", diote.

Urteetan luzatutako auzia
2009an ere gertatu zen lur-jausia bide horretan. Hori konpontze-

ko, 2010ean, jarduera eta obra baimena eman zion udalak Luku Baso S.L. enpresari. Hala ere, 2011n, udal dekretu hori aprobetxatuta, ehundaka kamioik edukia isuri zutela salatu zuten Goiuriko Kofradiak eta auzokide batek. Urte hartako ekain eta uztailean izan ziren baimenik gabeko isuriok. Udalaren erabaki horren kontra prozedura administratiboak daude zabalik Bilboko 2. eta 5. epaitegietan.



Asteburuan gertatu da Lukupeko Trokara eta Luku Txikira bidean lur-jausia.

"Erakundeetan aurkeztutako adituen-txostenek iragarri izan da luizia", diote

Kafe-soroetako langileen bizimodua hurreratu guran

Bateginez GKEak argazki erakusketa eratu du Ibarretxe kultur etxean; gaur, hitzaldia egongo da



Kafe-soroetako langileen bizimodu gogorra erakusten dute argazkiek.

> A.B.

San Miguel Pochutako (Guatemala) kafe-soroetako langileen bizimodua hurbildu guran, argazki erakusketa zabaldu du Bateginez Gobernu Kanpoko Erakundeak Ibarretxe kultur etxean. Batetik, langileen bizi baldintza gogorrak, eta, bestetik, Iurretako Udalaren laguntzagaz Bateginez bertan egindako lana islatzen dituzte argazkiok. Gaur da azken eguna erakusketa bisitatzeko.

Horrez gain, hitzaldia eskainiko dute, gaur, 18:30ean, Amaia Fernandez eta Irantzu Zabala Bateginezeko kideek. Biek ala biek bertatik bertara jarraitu zituzten joan zen udan GKEak San Miguel Pochutan garatutako proiektuak, eta, bertoko kafe-soroetako bizimodua azalduko dute *Kafe mingotsa* izenburupean, Ibarretxe kultur etxean.

> GARAI

Beratu auzoan putzu septikoa konponduko dute

Landa eremuaren garapenerako programa baten bidez dirulaguntza eman dio Jauralaritzak udalari

> M.O.

Udalak Beratu auzoan dagoen putzu septikoa konponduko du. Ordezkariek adierazi dute derrigorrezkoa dela konpontzea; antza denez, putzua tra-

batu egiten da sarri. Ez ei da oraingo eskaera, baina esan dute oraintxe ikusi dutela aukera, eta obra egitea erabaki dute. Izan ere, landa eremuaren garapena laguntzeko Erein programaren bidez dirulaguntza eman dio Eusko Jauralaritzak udalari. 37.300 euroko aurrekontua dauka proiektuak, eta 17.160 euro ipiniko ditu Jauralaritzak.

Proiektuak 37.300 euroko aurrekontua dauka, eta 17.160 euro ipiniko ditu Jauralaritzak

Aurten egingo dute obra. Baina, lan eskaintza publikoa egin barik dago oraindik.



PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

BATXILERGOA

lea artibai
Ikastetxea
Etorkizuna erakiz

94 616 9002
info@leartik.com
Xamio Etxeidea 19, Markina-Xamio (48270)
www.leartik.com

GEHIAGO JAKIN NAHI DUZU?



Ate irekiak
Martxoaren 2an!
10:30dik 13:00dara

▶ Berbaz

DANI IRAZOLA | Lanbide Heziketako irakaslea | Durangarra



“Lehiakortasuna bi eratarara lortu daiteke: soldatak bajatuta edo formazioa indartuta”

Enplegurako prestakuntzaren inguruan jardunaldiak antolatu ditu asteon Maristak ikastetxeak. Hizlarietako bat bertako irakasle Dani Irazola izan da. Durangaldeko prestakuntza profesionalari buruz eta jende gehiago kualifikatzeko premiari buruz egin du berba

►AMAIA UGALDE

Datuak emateko grafikoak marraztu ditu koadernoan Dani Irazola mekanika irakasleak. Durangaldean herriarren %40 kualifikatu bako delako jakin zuenean, zur eta lur geratu zen. Politikariek ahoz aho darabilten enpresen lehiakortasuna, formula magiko hori, prestakuntzaren bidez egin behar dela azaldu du Irazolak.

Zelakoa da Durangaldeko prestakuntzaren egoera?

Europar 2020rako helburu batzuk markatu dituzte prestakuntza arloan. Edozein lurralde-tarako tituluen banaketa ideal honako hau izango litzateke: %14 unibertsitate titulazioak, %76 Lanbide Heziketakoak, eta %10 kualifikazio bakoak. Datu horiek jakin nituenean, Durangaldeko datuak ikustera sartu nintzen Eustatera. Honako portzentaje hauek dauzkagu: %20 unibertsitate tituludunak, %40 Lanbide Heziketa mailakoak eta %40 kualifikazio bakoak. DEE Durangaldeko Enpresen Elkartean eta enpresa handietan kon-

“

Prestakuntza mailak ikusita, Durangaldean eskaini ahal dugun produktua manufakturatua da, batez ere”

“

Agente guztiok prestakuntza emateko ingurune bat sortu behar dugu. Enpresak ere inplikatu beharko lirateke”

trastatu ditugu datuok, eta emaitza berdinak lortu ditugu.

Zer ondorio dakartza kualifikatu bakoen portzentaje horrek?

Europar titulazio guztiak homologatu dituzte, eta ikasketen mailaren araberrako eskala bat egin dute. Lehenengo mailan, oinarriko lanetarako formazioa dago. Bigarren mailan, erdi mailako zikloen maila, esku-langileena. Hirugarren mailan, goi mailako zikloak daude, eta hori diseinua ere sartzen da. Laugarren mailan, graduak egongo lirateke, eta diseinua eta ingeniari-tza sartzen dira bertan. Bosgarren mailan, ikerketa egongo litzateke. Durangaldean, titulazio maila guztien batez bestekoa eginga da, 2. mailaren inguruan gaude. Horrek esan gura du, Durangaldean eskaini ahal dugun produktua manufakturatua dela, batez ere.

Orduan, zelan landu daiteke lehiakortasuna?

Guk aukeratu behar dugu norantz joan. Gu lehiakorrak izan gaitezke oinarriko mailatan, baina horretarako soldatak

bajatu eta ahalik eta merkeen produktu beharko genuke, gure kompetentzia kostu baxuko herrialdeetan dagoelako. Beste alternatiba bat da, mailatan igotzea. Kualifikatu bako herri-tarrak kualifikatuta, diseinuan edo ikerketan lehiakorragoak izan gaitezke. Orain, Lanbideren bidez, profesionaltasun agiriak eskaintzen ditugu heziketa zikloen barruko atalekin ikastaroak eskaintzeko. Kualifikazioa ez edukitzetik edukitzera-ko pausoak dira. Lanean dagoen jendeak ere aukera dauka profesionaltasun agiri horren ikasgaiak jasotzeko. Kontua zera da: gu garen modukoak izanda, gure kualifikazioarekin, zer egiteko gai gara?

Diru gutxiago dagoela baina lehiakortasuna lortu behar dela diote politikariek.

Zenbat bider entzun ditugu esaten krisialdi honen irteera berritzaile izatea dela? Diskurtsoetan polito geratzen da, baina zer esan nahi du berritzaile izateak? Ezinbestekoa da sormena edukitzea eta prestatuta egotea.

Zelan ikusten dituzu gaur egungo ikasleak?

Giroa ez da ona. Mezu guztiak oso negatiboak dira, eta ikasleengan ere negatibitatea ikusten dut. Sentsazioa ematen du berdin dela zer egiten duzun, total, egin hau edo ez egin! Jendeak sinistu behar du kualifikazioa igotzeko gai bagara, Durangalde aberastagoa bihurtu ahal izango dugula, aberastasun berbaren zentzu zabalean. Durangaldeko agente guztiok prestakuntza emateko ingurune bat sortu behar dugu, eta ez bakarrik agente formatiboak. Enpresak ere inplikatu beharko lirateke.

Lan baldintzak okerrera doaz...

Lehen ez geneukan manufakturatua izateko lehiarik. Onak ginen, eta Alemaniagaz edo Finlandiagaz konparatuta, merkeagoak... Orain, lehiakorrek direnek merkeago produzitzen dutenez, hemengo merkatzen gabilta: soldatak bajatzen, extrak kentzen... Lehiakor izateko bide bi daude: baldintza oso eskaseta produzitzea edo formazioaren bidez beste planteamendu bategaz saiatzea.



PLATERUENA MARTXOA

2013 EGITARUA

www.plateruena.net**01** BARIKUA**MUSIKAKONTZERTUA**OVNI GUARAJÉ
ÁLVARO LLERENA MARTÍNEZ

22:30etan. Sarrera: 6/8€

15 BARIKUA**MUSIKAKONTZERTUAK**MIKEL
URDANGARIN

22:30etan. Sarrera: 10/12€

02 ZAPATUA**MUSIKAKONTZERTUA**CÁPSULA
+ JOSEBA B. LENOIR

22:30etan. Sarrera: 10/

**16** ZAPATUA**KANTUZALEENTXOKOA**KANTULAGUN
KALEZ KALE

13:30etan Santa Anatik hasita.

**03** DOMEKA**UMEENTZAKO IKUSKIZUNA**IRRIEN LAGUNEKIN
KANTA ETA DANTZA

17:00etan. Sarrera: 5€. Harpidedunek 3€

16 ZAPATUA**DANTZALDI BILTARIA**

AIKO ERROMERIA

19:00etan. Sarrera DOAN

07 EGUENA**BERTSO SAIOA**

BERTSO KORRIKA

IGOR ELORTZA, UNAI ITURRIAGA,
MIREN AMURIZA, AITOR BIZKARRA
Gaijartzailea: ENEKO ABASOLO "ABARKAS"

20:00etan. Sarrera DOAN

21 EGUENA**ANTZERKIA**"INUNGANE, sustraiak airean"
Karrika Antzerki Taldea

20:00etan. Sarrera: 5€

**08** BARIKUA**JAIALDIA**EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA
TOÑI MASEDO "MUJERES DE ARMAS TOMAR" KABARETA
DURANGOKO ABESBATZEKO EMAKUMEAK
MUSIKA JARTZAILEAK: MONICA eta BEGO
DURANGOKO PLATAFORMA FEMINISTA

21:00etan. Sarrera DOAN


**22** BARIKUA**MUSIKAKONTZERTUAK**DURANG(H)OTS JAM SESSION
+ OMAR ACOSTA (flautista venezuelarra)

22:00etan. Sarrera DOAN

**09** ZAPATUA**MUSIKAKONTZERTUAK**

LA HÚNGARA

22:30etan. Sarrera: 15/18€

23 ZAPATUA**JAIALDIA**"ERBESTEA ABERRI" ikuskizuna
Krisitin dantza taldeaMUNDUKO KOLOREAK: dantza, jana, edana
21:00etan. Sarrera: 3€www.plateruenasarrerak.eu

Garajeetan uholdeak, noiz arte?

Eguraldi nahasia, bateko eguzkia, besteko haizea, elurra, txingorra, euria... Horrelakoa da gure Euskal Herriko klima, eta datorrena datorrela, ondo hartu behar. Ez ordea euria ari duen bakoitzean garajeetan uholdeak izateko daukagun arriskua eta beldurra. Urtea joan, urtea etorri, arazo bera: 2006an lehenengo uholdea, 2009an bigarrena eta hirugarrena, eta 2013an laugarrena. Dena pikutara, al-tzairuak, ontzi garbigailua, izozkailua, hozkailua...

Gertatzen den bakoitzean udaletxera eta diputaziora deitu, alkattea eta aparejadorea etorri, garajeko hondamendia beraien begiekin ikusi, argazkiak atera, arazoari erreparatu, hitz politik esan, itzaropen faltsuak eman... Baina 2013. urtera iritsi gara, eta oraindik inork erantzunik ez.

Abadiñoko Udalak diputazioarekin harremanetan dagoela esan zigun 2011n eta arazo hau konponduko zutela zin egin ziguten. Baina 2013. urtea iritsi da, eta berriro ere uholdeak izan ditugu. Noiz arte jarraitu behar dugu horrela? Hain zaila al da urak bide egokirik bideratzea? Konponbide bat nahi dugu.

Regina Arriola Astorkia - Abadiño

Sinetsi ezinik

Aiert Goenagaren kaleratzeak deseroso sentiarazten nau, eta buruak leher egin orduko barruak hustu beharra daukat.

Gerediaga Elkarteko kidea naizen aldetik esan nahi nuke ez nagoela ados elkarteak Aierti kontratua ez luzatzeko hartu duen erabakiarekin. Ez da lehen aldian Euskal Liburu eta Disko Azokak diru galerak dituena, eta gertatu direnean ez ziren krisi garaia ere, baina horregatik ez da inoiz zuzendaririk kaleratu.

Gainera, oso larria iruditzen zait esatea Aierte ez duela zintzo jokatu Gerediaga Elkartearekin eta ezin dut konprenitu nola prentsaratutako dezakegun tamaina horretako akusazioa aurrez frogatu gabe.

Erabakia errespetuz hartzen dut, zuzendaritzaren gehiengoak hartu duelako, baina ezin dut konpartitu.

Aierti nire esker ona, egindako lan guztiagatik.

Kepa Bengoa Madariaga - Gerediaga Elkarteko kidea

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA

PSE-EE



Ahal dugun gehiena egin behar dugu


Txikia nintzenezan –aspaldi ez dela, kar-kar-, ordu luzeak ematen nituen aiti-ta-amamen auzoan, Santa Apolonian, alegia. Usainak askoz ere sendoagoak ziren gaur egungoak baino. Nire gogoan, usain gozoko egunak daude gordeta: janari-, kafe-usaina... Eta usain txarreko egun asko ere bai: galdategi-, paper fabrika-, taladrina-, olio-usaina. Jolasten ginen tokietako lurrek eta hareek zituzten usainak ere desberdinak ziren. Toki batzuetan, otalur berdeak, marrubi-sailak eta ortuak zeuden; beste toki batzuetan, berriz, harea beltz edo gorriak, lokatzak. Larrinagatxutik jaisten ziren errekaetoetan eta Mañaria ibaian bainatzen ginen, eta ezka-luak eta zapaburuak harrapatzen genituen; eta iturburuetako ura ere edaten genuen, kezkarik hartu gabe.

Nerabezaroan –ezagueran sartzen hasi nintzenezan, kar-kar-, gogoan dut artikulu batek eragin zidan zirrara, sekula ez baitut ahaztu. Artikulu horretan, Durangaldea gorri-gorri zegoen marraztuta, Europa osoko airearen kalitatearik txarreana zuen eskualdea zelako. Artikuluaren arabera, metro koadroko galdategi gehien zuen alderdi-tako bat zen eta, gainera, Europako alderdirik kutsatuenetako bat zen. Orduan hasi nintzen kezkatzen.

Gaur egun, airearen kalitateak nabarmen egin du hobera, ingurumena babesteko atera diren arau eta lege berriei esker; orain, enpresek eta administrazioek ezinbestez hartu behar baituzte neurriak. Era berean, krisi ekonomikoak ere zuzeneko eragina izan du airearen hobekuntza horretan.

Azken egunetan, euri asko egin du, eta luiziak izan dira hainbat tokitan. Euriak argitara atera du Durangaldean ditugun galdategiko zabortegetako bat. Kalkuluen arabera, edozein tokitan eta edozein modutara ezin utz daitezkeen 10.000 m³ harea daude, tratamendua jasotzeko zain.

Herritarrek, enpresek eta, gehienbat, guk geuk –hau da, bermea eman behar duen Administrazioak– ahal dugun gehiena egin behar dugu hainbeste maite dugun lur hau hobetzeko, lur hau ez baita soilik gurea eta zaindako dugu zabortege honetan eta beste batzuetan zer egin den.



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215
astekaria@anboto.org

- Izen-abizenak
- telefonoa
- helbidea
- eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Laguntzaileak:



anboto
 komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
 48215-Iurreta
 (Bizkaia)
 Tel.: 94 681 65 58
 Erredakzioa:
 94 623 25 23
 Publizitatea:
 94 621 79 02
 publi@anboto.org

2013ko otsailaren 22a
 11. urtea - 490. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
 Joseba Derteano.
Administrazio burua:
 Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso,
 Amaia Huarte, Itxaso Altuna,
 Aitor Lopez.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
 Itsaso Esteban, Markel Onaindia
 eta Amaia Ugalde.
Maketazioa:
 Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
 Zalaoa Fuertes.

> JAIALDIA



Preso politikoaren eta iheslarien eskubideak musikaz aldarrikatzeko

8.000 ikuslek eskuratu dute Kalerarock jaialdirako sarrera: dena saldu da. Bihar, Landakogunean da zita

Otsailaren 8an ipini zituzten Kalerarock jaialdirako azken sarrerak salgai Plateruenean, eta egun horretan saldutakoekin, 8.000 sarrera saldu dituzte guztira.

Honezkerok sarrerarik eskuratu ez duenak ezingo du bihar jaialdira sartzeko txartelik erosi, dagoeneko salduta baitaude sarrera guzti-guztiak. Urte amaieran Euskal Herriko hainbat herritan ipini ziren txartelak salgai, eta agudo amaitu dira.

Kalerarock jaialdiaren bigarren edizioa da bihar Landakogunean ospatuko dutena, eta Betagarri taldeko Aitor Agirrek, eta jaialdiaren kanta sortu duen Esaixu taldeak egin dute jaialdiaren aurkezpena.

Oholtza bi atondu ditu antolakuntzak: Dj Bull eta Bad Sound System taldea karpatik ariko dira

Oholtza bi atondu ditu antolakuntzak, eta punta-puntako hamaika musika taldek joko dute musika jaialdian; Durangoko Azokan disko gehien saldu zuen Gatibuk edota Arcada Socialek, esate baterako.

Puntako hamaika musika taldek joko dute: Gatibuk, Betagarrik, KOPEk, eta Arcada Socialek, esaterako

Egun osorako plana da bihar Landakoguneko; izan ere, goizeko 11:30ean zabalduko dituzte ateak. Jaia borobiltzeko, Euskal Herrian sortutako doinu nahasketa dantzagarria eskainiko du Dj Bullek. Karpa ba-

Landakogunea beteko du "euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko musika festibalak"

tetik jardungo dute Dj Bullek eta reggae doinuak zabalduko dituen Irungo Mosku auzoko Bad Sound System taldeak.

Iaz egin zuten Kalerarock jaialdia lehenengoz, "euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko musika festibalak Durangoko erakustazoka betetzeko" helburuagaz, antolatzaileek esan zuten.

Durangoko musika eta aldarrikapen jaialdi honetan aurkeztu zuten iaz, "preso eta iheslarien etxeratzea ahaztuta nahi duen Herrira mugimendua".



Iheskideko elorriarrak ere, jaialdian partaide

Iazko udan ...*Irabazi arte* laugarren diskoa kaleratu zuen Elorrioko Iheskide taldeak, eta disko horretako kantak milaka entzuleri zuzenean eskaintzeko aukera izango du bihar, Durangoko Kalerarock jaialdian.

Disko horren harira Elorrioko laukotearekin izan genuen elkarrizketan adierazi zuten, "musikari dagokionez, irekiago da" taldea azkenaldian egiten dabilen lana, bai eta ...*Irabazi arte* diskoa bera ere: "Taldeen eboluzioa islatzea baina sus-traiak bere lekuan mantentzea da helburua: itxurakeriatan erori gabe, punk rockaren bitartez, garen moduan agertzea eta pentsatzen duguna azaleratzea", adierazi zuen laukoteak.

Laugarren diskorako egindako lana zuzenean aurkeztu eta kantek sentiarazten diena jendearekin partekatzeko gogotsu daude Iheskidekoak. Durangoko biharakoaren ostean, gainera, horretarako beste bi aukera daukate: Elorrioko gazte txearen urteurrenean, eta Gazte Danbada ekitaldian ere joko baitute, martxoan.

Askotariko doinuak izango dira bihar, Durangoko Landakogunean: Vendetta; aste honetan *E.H. Calling* diskoa aurkeztu berri duen Kaotiko; Hesian zortzikote sakandarra; hardcore eta metal doinuak uztartzen dituen KOP; Governors; Betagarri; edo Gatibu daude iragarrita, besteak beste.

> MUSIKA

Publikotik ariko dira Xabier Montoia eta Rafa Rueda Plateruenean, gaur

“Musikarien eta publikoaren arteko distantzia apurtu” gura dute Xabier Montoiak eta Rafa Ruedak gaurko kontzertuan; jendeartetik joko dute, 22:30ean hasita, Durangoko Plateruenean

Futbola maite ez dutenentzat ere alternatibaren bat egon behar dela dio Rafa Ruedak barrez. Futbol derbia baino zuzeneko musika nahiago dutenentzako aukera da gaur, 22:30ean hasita, Durangoko Plateruenean eskainiko dutena. Rafa Ruedak duela urte eta erdi kalera-



tu zuen *Enaren geometria* diskoa aurkeztuko du kontzertu horretan, eta *Montoiaren Mundu Miresgarria*, Xabier Montoiak. Beren taldeek lagunduta etorriko dira musikari biak.

Ruedak azaldu duenez, berezia izango da gaur gaueko Platerueneko emanaldia: entzulearekiko gertutasuna lortu gura dute, eta jendartetik joko dute: “Plateruena oso dimentsio handiko lekua da, eta nahi duguna da, musikari eta publikoaren arteko distantzia apurtzea”. Jendartera jaitsita jardungo dute.

Bigarren aldia da Rafa Ruedak eta Xabier Montoiak kontzertu bateko kartela konpartitzen dutena, baina elkarlanean jardundakoak dira: Lauaxetaren omezezko *Ehungarrenean hamaika* ikuskituzean elkarrekin aritu ziren.

Sarritan jo dute biek Plateruenean: antzokiko lehenengo kontzertuetariko bat Rafa Ruedarena izan zen, eta diskoak aurkeztera ez ezik bertako ekimen berezietan parte hartzeraz ere etorri izan dira, Rueda eta Montoia: Kantulagunen, Kantuaren Kantoian, etab.



GEURE DURANGALDEA

JON IRAZABAL

Gerediaga



Potin arteko ametsak

Gaur goizean, ez dakit zergatik, lagun batekin gogoratu naiz. Oso pertsona berezia. Orain urte asko hainbat jira-bira eman ondoren munduan zehar herritxiki batean jarri zuen bere ipurdi ibiltaria. Bertan ezagutu zuen buztinlaria izandako adineko gizon bat, eta galzorian zegoen ofizio hura ikasi zuen. Potinak eta pegarrak egiten hasi zen baina zerbait falta zitzaion eta ofizio haren iragana ikertzen eta batzen hasi zen. Ez zuen nahi mendeetako altxor baten hiletako azken gonbidatua izan. Lanaren ondorioz, gauza bi lortu zituen: ofizioa ikastea eta ofizioari buruz jakitea. Hurrengo urratsa ikasitakoa plazaratzea izan zen eta horretarako buztinarentzat “babes-etxe” bat eraiki zuen.

Erotzat jo zuten. Oztopo eta eraso asko jarri zizkioten baina ametsa, bere familia eta lagun gutxi batzuen laguntzarekin, pixkanaka sendotuz joan zen. Denboraldi honetan buztin gintza berpiztu zen eta askoren ogibidea egin. Hauek, urteak igaro ondoren, konturatu ziren herri txiki hartan zegoen gunea ez zela euren zuten bezala tailer soila.

Erokeria, eurak konturatu gabe, euren munduko erreferentziatzeko elementu bihurtuta zegoela.

Asanblada demokratikoa egin ondoren joan ziren eta nire lagunari esan zioten “zure proiektua gure mundurako oinarritzakoa da eta ondoren guk ere zure etxearen etorkizuna nolakoa izan behar duen zer esana badugu” nire lagunak erantzun zuen “non egon zineten ekaitz egunetan? Etorrizun gabeko proiektua zela eta beste egitasmo batzuei eman behar zitzaizela lehentasuna aldarrikatzen zenean? Nahiz eta akaso ekaitz batek bota, hau ez da proiektu bat, baizik sustraiak zundu dituen arbola. Jaio zen arboladia osatzeko ez arbola bakartia izateko, baina argi du non sortu zen bere kimua. Nahi baduzue arbola sendotzen lagundu, ongietorriak. Ez hurbildu nola inausi behar dugun agintzera. Urteak daramatzagu mundu honetan eta ikasia dugu ardiak eta otsoak bereizten. Azken hauek ardiak hasita dardenean hurbiltzen dira artaldera”.

Lagunak kontatu zidan batzuk gelditu zirela eta arbolak eta potin zaharrek eskertu zituztela euren ekarpenak. Familia osoaren lanarekin oraindik jarraitzen du babes-etxeak denentzat ateak zabalik mantentzen.

> LITERATURA

> I.E.

Elorriko Iturri kultur etxeko Irakurleen Taldera gonbidatu zuten eguaztenean Unai Elorriaga idazlea, eta *SPra-ko tranbia* liburuaren inguruan solasaldia izan zuten beragaz. Izan ere, Elorriagaren liburu hori irakurri dute irakurle taldekoek hilabete honetan.

Azaroan ipini zuten irakurle talde hori martxan, eta Peru Magdalena idazle durangarrak koordinatzen du. Irakurle taldeko kideei ez ezik, interesa duten gainontzeko herritarrei ere luzatu zieten solasaldirako gonbidapena.

Azaroan ipini zuten Iturri kultur etxeko irakurle talde hori martxan, eta Peru Magdalena idazle durangarrak koordinatzen du

Unai Elorriagagaz solasaldian batu dira Iturriko irakurzaleak

Eguazten iluntzean izan zuten Elorriko kultur etxeko irakurle taldekoek Unai Elorriaga idazlearen bisita



Hemen agertu gura badozu deitu!

94 621 79 02

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

OTSAILAK 22 22:30ean RAFA RUEDA eta XABIER MONTOIA. Kontzertua. 6 euro.

OTSAILAK 24 19:00etan AIKO ERROMERIA Erromeria. Doan.


OTSAILAK 28 20:00etan KANTULAGUN Kantuzaleen txokoa. Doan.

Eguneko menua asteleheneetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

MÁS PEQUEÑOS QUE EL GUGGENHEIM
Los Guggenheim (Mexiko)

Otsailak 24 • 19:00

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

> LEHIAKETA

Ivan Rodriguezek irabazi du San Blas argazki lehiaketa

Bere alabaren argazkiagaz irabazi du Ivan Rodriguez argazkilari durangarrak lehiaketa

Udalak prentsa oharrean azaldu duenez, 45 argazkilarik parte hartu dute aurten, San Blas eguneko argazki lehiaketan, eta 88 argazki jaso dituzte aurten —iaz 52 jaso zituzten.

Durangoko Ivan Rodriguez argazkilariak irabazi du, bigarrenez, lehenengo saria; duela

Duela lau urte ere San Blas lehiaketako lehenengo saria jaso zuen Ivan Rodriguez argazkilari durangarrak

lau urte ere lehenengo saria irabazi zuen. 400 euroko saria jaso du Rodriguezek, eta adierazi duenez, “bai sariagatik, bai eta irabazi duen argazkia alabarena delako ere oso pozik” dago argazkizalea.

Rodriguezek azaldu duenez, alaba lagun baten sorbalda gainean zegoela egindakoa da epaimahaiak aukeratutako argazkia. *Azken orduko erosketak* dauka izenburua.

Webguneen diseinuan egiten du lan Rodriguezek, eta esan bezala, hainbat biderrez aurkeztu izan du bere lana San Blas lehiaketa honetan.

Bigarren saria, bestalde, Carlos De Cos argazkilari gipuzkoarri eman dio epaimahaiak: 250 euroko saria irabazi du De Cos-ek, abelburuak agertzen diren argazki bati eskerrak.

Aurten 19 abadiñarrek parte hartu dute lehiaketan, eta Ignacio Conde Martinek jaso du abadiñar batek egindako argazki onenaren saria. Baserritar bat abelburua erakusten agertzen da Conde Martinen argazki horretan. 2011n lehenengo saria jaso zuen Condek.

Martxoaren 8ra arte, Txanporta kultur etxean erakusketan izango dira San Blas argazki lehiaketara aurkezturiko lanak.

Ignacio Conde Martin argazkilariari eman diote Abadiñar batek egindako argazki onenaren saria

> PINTURA

Frantzia bizi eta Irlanda zein Espainiako tailerretan ere lan egiten du Felix Anaut Zaragozako artistak, baina Europa osoko aretoetan erakusten du bere lana. Aste honetan inauguratu dute Elorrioko Iturri kultur etxean bere erakusketa: BBK Fundazioak eta Elorrioko Udalak elkarlanean ekarri dute bilduma Elorrioko kultur etxera.

Natura, geometria, zientzia, artearen historia zein ortografia baliatu ditu Felix Anautek lanak sortzeko

Madriilen eta Parisen ikasitakoa da Anaut. Pintura abstraktura 80ko hamarkadan hurreratu zen, eta kaligrafia arabiarra inspirazio iturritzat hartuta jardun izan du.

Hainbat herrialdetan garatu du margogintzako bere ibilbidea, eta besteak beste, Belfasten arte garaikideko galeria bat zabaldu zuen 80ko hamarkadan. Era berean, nabarmentzekoa da

bere lanetariko batzuk Britaniar Museoan ere ikusgai daudela.

Natura, geometria, zientzia, artearen historia zein ortografia baliatu ditu egileak erakusketa honetako lanak egiteko, eta euskarri bitan jardun du: paper zein oihal gainean egindako koardroak dira bildumakoak, hain zuzen.

90eko hamarkadatik aurrera, lanaldi osoz dihardu Anautek sorkuntza lanetan. Azken urteetan, pintura figuratibo indartsua jorratu du gehienbat; baina, gaur egun, abstraktua eta figuratiboagoa uztartzen ditu.

Zaragozan jaio zen, 1944an, Felix Anaut, eta margolanak ez ezik, zeramika eta eskultura ere landu izan ditu.

Egun osoz eta doako sarreragaz dago erakusketa ikusgai, Iturri kultur etxean.

Zaragozan jaio zen, 1944an, Anaut, eta pintura ez ezik, zeramika eta eskultura ere jorratu izan ditu

Felix Anaut artistaren pintura abstraktua, Iturri kultur etxean

Asteon inauguratu dute Zaragozan jaiotako artistaren erakusketa, Elorrioren



hitz
liburudenda
artekalea 14, durango 946 810 776
info@hitzliburudenda.com

URANGA AUTOAK
Astelehenetik ostiralera 08:00-20:00
Larunbatetan 09:00-13:00
www.urangaautoak.com

Pneumatikoak: Denetarik marka eta prezioak
Olio eta filtro aldaketan: martxora arte **PREZIO ITXIAK**

MARKA ETA MODELOA	ERREBISIO MOTA	PREZIOA
SEAT IBIZA 1.9 SDI 64 CV (02-05)	75000 km-tara	80,00 €
VOLKSWAGEN GOLF 1.9 TDI 90 CV (04-09)	75000 km-tara	90,00 €
MERCEDES CLASE C 220 CDI 180 CV (07-12)	75000 km-tara	110,00 €
PEUGEOT 206 1.4i 75 CV (98-09)	90000 km-tara	120,00 €
PEUGEOT 307 2.0 HDI 90 CV (00-05)	140000 km-tara	120,00 €
MERCEDES VITO 110D 98 CV (96-03)	Inspektzio A zerb.	140,00 €

AURREKONTUAK DOAN! ESKATU ZUREA

➤ Aisialdia

➤ GAZTE GARA GAZTE!

“Prestaketa egin ondoren, triatloietan parte hartzeko gogoz gaude; kirol osoa da”



Uxue Zeberio eta Leire San Nicolas Amorebieta-Etxanoko kiroldegi ondoan dagoen atletismo pistan, eguaztenean.

➤ JOSEBA DERTEANO

Uxue Zeberio (15 urte, Amorebieta-Etxano) eta Leire San Nicolas (16 urte, Bermeo) Garai Triatloi taldean hasi dira aurten entrenatzen. Eurak dira 35 laguneko taldean lehenengo emakumeak. Biak igerian dabiltza umetatik.

Amorebieta-Etxanoko igeriketa taldean zabiltzate biok.

Uxue Zeberio: Bai. Orain hiru urte, Garaiko triatloi taldeko igerilariak prestatzeko taldea zen, eta orain urte bi sortu zuten Amorebieta-Etxanoko igeriketa taldea. Sortu zenetik han gabiltza, baina ni neuk txiki-txikitatik ibili izan naiz igerian, hiru urte nituenetik. Medikuaren aginduz hasi nintzen, eta harrezkero ez dut utzi.

Leire San Nicolas: Neu ere medikuak esanda hasi nintzen sei bat urtegar, eta gerora, zaletu egin nintzen.

Kirol zaleak al zarete?

U.Z.: Nik saskibaloian jokatzen nuen orain urtebetera arte. Ez nuen kirol biak praktikatzen astirik, eta igeriketa aukeratu nuen.

L.S.N.: Ni tenisean eta atletismoan ibili izan naiz. Gauza asko. Niri ere ez zidan denetarako astirik ematen, eta igeriketa aukeratu nuen, betidanik nabilelako horretan.

Mikel Zabala zuen entrenatzailea eta Garaiko triatloi taldeko kidea da. Berak proposatu zizuen triatloi taldean sartzeko?

U.Z.: Bai. Mikelek beti kontatzen zigun zelan zen triatloiak eta egindakoa, eta ni beti erakarri izan nau triatloiak. Kirol osoa iruditzen zait. Egun batean, neuk esan nion Mikeli triatloiak egin gura nituela.

L.S.N.: Bermeoko atletismo taldean egon nintzenean, umeen triatloiak egiten ni-

tuen, eta gustatu egiten zitzaidan. Mikelek esan zidan Uxue triatloi taldera apuntatu zela, eta igeriketa teknika hobetuzean, nik ere egin nitzakeela triatloiak. Neuri ere kirol osoa iruditzen zait.

Zelan planifikatu dizuete aurtengo denboraldia?

A.S.N.: Bizkaiko eta Euskal Herriko igeriketa txapelketak izan ditugu oraintsu, eta ondo ibili gara. Mikelek esan digu pena ematen diola igeriketa horrela, bat-batean, uzteak eta denboraldia berrantolatu egingo digula esan digu.

U.Z.: Asteaz sei egunetan egiten dugu igeri. Astelehenetik zapatara. Bizikleta eta korrika saioak ipiniko dizkigu, baina batez ere, igerian ibiliko gara momentuz.

Igerian eta korrika ondo zabiltzate. Eta bizikletan?

A.S.N.: Nahiko txarto (barreak).

U.Z.: Ez oso ondo (barreak). Mikelegaz ez gara askorik ibili. Behin bakarrik, egia esanda. Iñaki Lejarretaren orimenezko ibilaldian, Bilbora joan-etorria egin genuen.

Triatloi ofizial bat egiteko gogoz zaudete?

A.S.N.: Bai. Kadeteak garen, modalitate batzuk bakarrik egin ditzakegu, baina gogoz gaude.

U.Z.: Horretarako animatu gara taldean sartzerako. Prestaketa on baten ondoren, triatloietan parte hartzeko gogotsu gaude.

Triatloietan zerk ematen diezue errespeturik handiena?

U.Z.: Igeri egiteko korrikara pasatzeak ez digu beldurrik ematen, baina korrikatik bizikletara eta segituan berriro korrikara... Horrek, bai. Horrek errespetua ematen du, bat-bateko aldaketak direlako. Baina prestakuntza kontua da dena.

“

Uxue Zeberio: “Neuk esan nion Mikel entrenatzaileari triatloiak egin gura nituela”

“Bizikletatik korrikara pasatzeko uneak ematen du errespetu handiena”

Leire San Nicolas: “Atletismoan eta tenisean ere aritu izan naiz. Astirik ez eta utzi egin nituen”

laguntzaileak



> FUTBOLA

Asteburuan Durangaldean izan zen, familia, lagunak eta ezagunak agurtzen. Astelehenean joan zen Tbilisira.

“Sentsazioen bila joan nintzen, eta taldean giro ona dagoela ikusi dut”

Georgiako Dinamo Tbilisi taldeagaz astebete eman du probak egiten, eta han aurkitu duenak konbentzitu egin du. Geratzen den denboraldirako eta beste birako kontratua sinatu du.

> JOSEBA DERTEANO

Espainiakoaren aldean liga ahulagoa izanagatik, betondoko zauriak garbi uzten du Georgian ere ez direla besomozak. Hizkuntza eta kultura arrotzean integratzen laguntzeko jokalarari euskaldun bat baino gehiago izango du inguruan.

Zerk eraman zaitu Dinamo Tbilisiren eskaintza onartzera?

Joan zen denboraldia amaitu eta hilabete ingurura, Leeds United taldeagaz (Ingalaterrako bigarren maila) probanegon nintzen. Hiru bider joan nintzen hara. Ni gehiagotan joatea nahi zuten eurek, baina ez zuten gastuen kargu egin gura. Nik esan nien nire inguruko hainbat bideo daudela, eta haiek ikusi zitzaizkela, baina ez nintzela gehiago joango gastuak ordaindu ez. Eurek eurenean jarraitu zuten, eta hortxe geratu zen kontua. Harrezkerro, Espainiako bigarren mailako taldeen eskaintzak izan ditut, bere sasoi onartu ez nituenak eta gerora beharbada onartu izango nituenak. Baina ez naiz damutzen orain hartutako erabakiaz. Atzerrira joan eta beste

liga bat ezagutzea interesgarria da, eta ilusio handiz nago.

Sentitu duzu, unerren batean, talderik barik jarraitu zenezakeela?

Bai, azken asteetan urduri ibili naiz, ez zelako ezer irteten. Neguko merkatua itxi egin zen. Futbolak beharbada ez zidala beste aukerarik emango pentsatu izan dut. Oraindik 30 urte ditut, eta hiruzpalau urte on geratzen zaizkidala sentitzen nuen. Esan moduan, aukera batzuei joaten utzi nien, eta dudak sortu zitzaizkidan zuzen jokatu ote nuen. Baina sekula ez da jakiten hurrengo egunean zer aukera sortu daitekeen. Erabaki gaitzak dira. Azkenean, ez dakit nori eskerrak, baina Dinamo Tbilisiren aukera irten da, eta pozik dago.

Zer dakizu Dinamo Tbilisiri buruz?

Egia esan, oraintsura arte, ezer gutxi. Orain urte batzuk Athleticek Dinamo Tbilisiren aurka jokatu zuen, eta horregatik ezagutzen nuen. Interesa zutela jakitean, ikertzen hasi nintzen, eta nire taldean estatuko jokalarari batzuk daudela jakin nuen: Mikel Alvaro amurriarra, Xisco Muñoz (Valentziako eta Betiseko jokalarari ohia) eta Carles Coto (Bartzelonako beheko taldeetan aritua), esaterako. Mikel Alvarogaz berba egin eta gustura zeudela esan zidan. Horrek joatera animatu ninduen. Endika Bordasek ere hiri berean jokatzen du (Lokomotiv Tbilisin). Azkenean, susmoa dut, denok elkarrekin ibiliko garena.

Tbilisi taldeagaz eman duzu astebete. Zer moduz?

Dinamo Tbilisigaz astebete egin dut Turkian, entrenatzen zein lagunarteko partiduak jokatzen.

“

Neguko merkatua ixtean, pentsatu nuen beharbada futbolak ez zidala beste aukerarik emango”

“

Tbilisiri buruz ikertzen hasi eta nire taldean estatuko hainbat jokalarari zeudela ikusi nuen”

USTARITZ ALDEKOA-OTALORA

DATU OROKORRAK

- **Jaioteguna:** 1983-02-16
- **Jaioterria:** Abadiño

IBILBIDEA

- **Baskonia:** 2001/03
- **Bilbao Athletic:** 2003/06
- **Athletic Bilbao:** 2006/12
- **Betis:** 2011/12 (utzita)
- **Dinamo Tbilisi:** Geratzen den denboraldia eta beste bi

Nire helburua ez zen taldean zer eman dezakedan bakarrik ikustea. Sentsazio bila ere joan nintzen, eta taldean giro ona dagoela ikusi dut. Esaterako, askotan geratzen dira afaritarako. Talde gaztea eta bizia ere bada. Esperientzia berria eta polita izan daitekeela sentitu dut.

Durangon eman dituzun egunak ezagunei eta familiari gero arte esateko baliatuko zenituen.

Hori da. Familiak babes osoa eman dit. Nire ogibidea hori dela esan didate, eta ni pozik banago, eurek ere pozik daudela. Neskalaguna nirekin etorriko da Tbilisira. Beraz, hemen eman dituzun egunak (astelehenean joan zen Tbilisira) hainbat laguni eta ezaguni agur esateko erabili ditut.

Denbora honetan guztian, zelan utsi diozu sasoi fisikoari?

Durangoko Kulturalagaz entrenatzen ibili naiz denbora batean. Asko eskertzen diet aukera hori eman didatelako. Horrez gainera, korrika egin dut edo gimnasia joan naiz.

Zer iruditzen zaizu Kulturalak orain arte egindako denboraldia?

Eurekin entrenatu naiz, eta talde polita dutela deritzot. Denboraldi hasiera oso ona izan zuten. Ondoren, zazpi bat partiduko bolada txar bat etorri zen. Orain, hasierako sasoi puntu hori hartu ezinda dabilta, eta irabaztekoak ziren partiduren batzuek ihes egin diete. Ea berriro gorantz egiten duten.

Eta Athleticen denboraldiari, zer deritzozu?

Beste hainbeste esango nuke. Ezin dira heldu iazko puntu horretara. Azken partiduak onak izan dira, baina behin betiko gorantz egiteko zerbaite falta zaie. Kirolez kanpoko kontuek ere ez dute askorik laguntzen. Gehiegi berba egin da jokalarari batzuei buruz. Ea Athleticek ere gora egiten duen.

> PILOTA

Tolosa eta Santxo iazko txapela berritzeko faboritoen artean daude

Eguenean hasiko da aurtengo Mallabiko Biharko Izarrak Pilota Txapelketa, hamargarren aldiz; oraingo edizio honetan ere parte hartuko dute Tolosa eta Santxo iazko txapeldunek



Tolosa eta Santxo txapela buruan, iazko Biharko Izarrak Txapelketako finala Elezkano II eta Landabururi irabazi ostean.

> JOSEBA DERTEANO

Mallabiko Biharko Izarrak Pilota Txapelketak hamarkada bat beteko du aurten. Orain arteko bederatzia finalek 18 txapeldun utzi dituzte, eta horietatik 14 pilotarik esku pilota profesionalerako saltoa eman izan dute. Oinatz Gonzalez eta Gorka Urtsun dira saltoa eman ez dutenak, baina esku pilotak eman ez dien aukera erremontek eskaini die. Urtsun, esaterako, jokamolde horretako izarrik handienetakoa da gaur egun. Profesionaletan debutatu ez duten beste biak iazko txapeldunak dira. Xabier Tolosa andoaindarrena (Mallabikoa du ama) denbora kontua da. Probak egin ditu Aspe enpresagaz, eta Biharko Iza-

lazko txapeldunetz gainera, Eric Jaka, Jon Ansoategi eta Iñaki Artola irabazteko faboritoen artean daude

rrak amaitzean, debutatu egin dezake. Xabi Santxo ere saltoa emateko prest dagoela erakusten saiatuko da aurten.

Joko sistema betikoa da. 24 pilotari multzo bitan banatu dituzte: seina aurrelari eta atzelari-gaz. Multzo bakoitzeko aurrelari-iek atzelari denekin osatuko dute bikotea, bigarren multzokoen aurka. Bikote finkorik ez dagoe-

nez, tanteorik onenak lortu dituzten zortzi pilotariak sailkatuko dira finalerdietarako.

Iazko txapeldunetz gainera, beste hainbat faborito bereiztu daitezke. Eric Jaka amezketarra maila handian dabil; Jon Ansoategi etxarri-aranaztarrak Diario Vasco eta Olazar txapelketetako finalak jokatu ditu, eta Iñaki Artola Asegarcegaz debutatzeko-tan da.

Datorren egueneko lehen jardunaldian (21:30ean) Ansoategi-Murgiondo eta Jaka-Imaz neurtuko dira. Finalak maiztzean jokatu dituzte.

Antolatzaileak hamargarren urteurrena zelan ospatu pentsatzen ari dira. Orain arteko txapeldun denak final egunean ba-

tzea eta oroigarri bat ematea da hausnartzen ari diren ekimene-tako bat.

PILOTARIAK

A MULTZOA:

Aurrelariak: Ansoategi, Bixintxo, Artola, Urbieta, Urretabizkaia eta Uriona.

Atzelariak: Perez, Galarza, Bolinaga, Murgiondo, Etxamendi eta Tolosa.

B MULTZOA:

Aurrelariak: Jaka, Olaetxea, Agirre, Arrieta, Santxo eta Doronsoro.

Atzelariak: Irusta, Lasa Rezusta, Arraibel, Imaz eta Aizpurua.

ADITUAREN TXOKOA



Unai Zamalloa

Saskibaloia

Une erabakigarria

Momentu garrantzitsuak dira hauek, denboraldi erdian gaudelako. Laster definituko dira bigarren faseetarako sailkapenak, eta horrek talde bakoitzak non amaituko duen pista onak emango dizkigu.

Mutilen Tabirakoko taldearen hasiera oso ona izan bazen, azkenaldi honetan egin duen beherakada handia izan da, eta goiko postuen borrokan egotetik bederatzigarren postura jaitsi da, partidu asko galduta, azkenaldian. Egia esan, hasierako itxura eta asmoak orain beste batzuk bihurtu dira, eta helburua jaitsierako postuak urrun mantentzea da. Ea apurka gorantzza doazen eta hasierako joko eta bide onera itzultzen diren. Segi gogor!

Nesken Tabirakoko taldea, ostera, alderantzizko bidea egiten ari da, eta txarto hasi baziren ere, orain gorantzza doaz, eta laugarren postuan finkatuta daude. Asteburu honetan Zurt Taberna taldea hartuko dute etxean. Garaipena lortzeko gai dira, talde lanean jarraitzen badute eta bide onak dakarren konfiantzarekin. Ea horrela den.

Zornotzako EBA mailako taldea, ostera, lesioen plagarekin bizitzen ikasita, gorantzza doa aurreko larunbatean Santurtziren aurkako derbia autoritate osoz irabazita. Sailkapeneko bigarren postuan jarri da, eta lesioek bakean uzten badute, denboraldia hor goian amaituko du, eta igoera fasea jokatzeko aukera izango du. Hemendik, zorianak Mikel Garitaonandiarri eta talde osoari!

katerin ardoak
inaki uribe

saltsan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

- Eguneko menuak
- Asteburueta menu bereziak
- Delikatessena
- Ardoteka

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

IURRETA

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
Bixente Kapanaga 19, behea - 94 681 66 73 - Iurreta
www.zarateyelexpe.com

Elorrioren aukera onak

> TXIRRINDULARITZA

Europako talderik beterranoenak indarberrituta ekingo dio denboraldiari

Egitura sendoa, esperientziadun zuzendariak eta proiektiodun ziklistak dira proiektu berriaren zutarrria



Martitzenean auzetu zuten aurtenko nagusien taldea, Kurutzia Hotelean.

> JOSEBA DERTEANO

Martitzenean, Cafes Baque-Conservas Campos taldearen aurkezpen ofizialean azpimarratu zuten, Europako talderik beterranoena da: 1978ko martxoaren 17an sortu zen. Beraz, aurten 35. biderrez egongo da errepidean. Denboral-

di berriari begira, hutsetik hasi dira. Birjaiotza baten antzekoa izango da. Taldea goitik behera aldatu dute: talde teknikoak, txirrindulariak, egitura... Den-dena.

Alde batetik, Leioa, Berango eta Erandioren artean sortutako Elkar Kirolak parte izango da

talde berria, eta Berangon izango du egoitza ofiziala. Elkarrekin horrek gazte eta kadete mailako txirrindulari taldeak ere sortu ditu. Beraz, harrobiak berebiziko garrantzia hartuko du proiektu berri honetan. Bestetik, izen berriak beteta aurkeztu dute talde nagusi.

sia. David Etxebarria txirrindulari ohia da taldearen zuzendaria, eta Ruben Gorospe bigarrena (iaz zuzendaria izan zen Gorospe). Gazte mailako taldea, berriz, Mikel Praderak gidatuko du. Txirrindulariei dagokienez, ia denak dira berriak. Bestalde, taldea osatzen duten 13 txirrindularietatik bakararra da Durangaldekoa: Paul Usabel atxondarra (1991n jaioa). Orain arte, Usabel pistan aritu da batez ere, baina aurrerantzean errepidean zentratuko da.

David Etxebarriak azaldu duenez, pentsakeran ere aldaketa eman gura du taldean: "Berba bat buruan txertatu dezatela nahi dugu: garaipena. Pentsakera hori eduki barik, gaitza da emaitza onak lortzea. Ez dugu beldurrik izan behar berba hori aipatzeko".

> Soraluzen hasiko dira

Asteburuan Soraluzeko lasterketan lehiatuko dira (Lehendakari Txapelketarako puntuagarria). Ibilbide gorabeheratsuan Mario Gonzalez kantabriarra izango da Cafes Baque-Conservas Campos taldearen arma nagusia. Antonio Angulo, Iñigo Ojeda eta Sebastian Mascaró ere irabazteko hautagaiak dira.

> ERRUGBIA

Hamabi partidu eta gero, irabazi egin du Durango Ilarduyak

> JOSEBA DERTEANO

Ohorezko B mailako 12. jardunaldira arte itxaron behar izan du Durango Ilarduyak denboraldiko lehenengo garaipena ospatzeko. Joan zen asteburuan, 8-3 menderatu zuten BUC Bartzelona etxean. Domekan, Ohorezko B mailan ahulen dabilzan talde horiek biak lehiatu ziren Arripausuetako zelaietan. Jokoa, ona baino gehiago, intentsitate handikoa izan zen.

Taldeko jokalarari Maxi Mendezek berba bitan laburbildu du, BUC Bartzelonaren kontrako partidua amaitutakoan, zaleek zein jokalariek sentitu zutena: "Bazen sasoa". Oso garaipen ospatua izan zela adierazi du Mendezek, eta garaipen horri esker, hurrengo partiduei aurre egiteko indarberrituta dagoela taldea. Datorren asteburuari begira, Eibarren kontra jokatuko dute domekan, etxetik kanpora. Eibar bosgarren dago sailkapenean, eta puntu bakarrera du hirugarren postua.

> MENDIKO ESKIA

Iñigo Lariz txapeldun Euskal Herriko Txapelketan

> JOSEBA DERTEANO

Joan zen asteburuan Nafarroako Izaban jokatutako txapelketa bietan (erlojupekoa eta bakarkako igoera) mendiko eski igoeretan euskaldun onena dela erakutsi du Mugarra triatloi taldeko Iñigo Larizek.

Zapatuan, Belagua eta Zuriza artean dagoen Txamantxoia mendira igoera bi eginez jokatu zuten bakarkako txapela. Lasterketa Wilfrid Jumer frantziarrak irabazi zuen. Iñigo Lariz bigarren sailkatu zen. Bera izan zen lehenengo euskalduna, eta hartara, modalitate horretako Euskal Herriko Txapelketa irabazi zuen. Javier Tirapu nafarrak eta Lander Alvarez donostiarrak osatu zuten euskaldunen podiuma.

Domekan, Izabatik Ardibidepikua izeneko tontorrerako igoeran, Lariz lehenengo sailkatu zen, Jumereren aurretik.

> FUTBOLA

Iurretakok behar handiagoa du derbian

Elorrioren kontrako derbian Iurretakok puntuak behar ditu, igoera postuen borrokan jarraitzeko

Ohorezko mailan, Iurretako eta Elorrio derbian neuruko dira bihar, Larrakozelain. Etxeko taldea goiko postuetan dabil, eta ondorioz, puntu behar izango du. Igoera eta promozio postuetan dauden Santurtzik eta Sodupe (lau eta hiru puntura, hurrenez hurren) irabazteko par-

tiduak dituzte. Horien lortzea jarraitzeko behar ditu hiru puntuok Iurretakok.

Elorriok, ostera, bederatziko puntuok alde du jaitsiera postuetatik. Aurten, Eleizalden baino indartsuago dabilza etxetik kanpora: etxean partidu bakarria irabazi dute eta kanpoan hiru.

> AGENDA

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Iurretako-Elorrio
· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

Zaldua-Plentzia
· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

Berriz-Artibai
· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

BIGAREN ERREGIONALA

Ezkurdi-Gernika Sporting
· Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Elorrio B-Isturri Gorri B
· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

Elorrio-Ariz
· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

> ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Elorrioko Buskantza-Debarrena
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

Sasikoa-Eraso Aiarra
· Zapatuan, 18:30etan, Landako kiroldegian

MAILA GORENA

Sasikoa B-Muskiz
· Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Gu Lagunak-Aurrera Beti
· Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian

Abadiñoko Gaztetxe-Sapuberri
· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian

Dantzari-Isturri Gorri Zurbaranberri
· Zapatuan, 17:30etan, Iurretako Lanbide Heziketa Institutuan

BIGAREN ERREGIONALA

Elorrioko C-Mendibeltz
· Zapatuan, 15:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

> SASKIBALOA

LEHENENGO MAILA

Tabirako Baque-Fundacion 5+11
Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

BIGAREN ERREGIONALA

Julza-Zaldua - Ugeraga
Barikuan, 20:00etan, Zaldibarko kiroldegian

OSTEOPATIA IKASTAROA

elorrion

Osteopatia ikasi nahi?
ORAIN DUZU MOMENTUA!

Astean zehar edo asteburuetan egiteko aukera

INFORMAZIO GEHIAGORAKO
670 582 764

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Otsailaren 24an, 17:00etan,
Elorriko Arriolan

Errauskin

Dantzaren eta txotxongiloen bitartez Charles Perrault idazle frantsesaren 'Mari Errauskin' ipuin klasikoaren bertsioa eskaintzen du Luna Teatro Danza taldeak 'Cenicienta y las zapatillas de cristal' lan honetan.

Antzerkia

:: BERRIZ

Otsailaren 22an, 18:00etan
La Baldufa taldearen
'Printze zoriontsua',
Kultur Etxean.

:: DURANGO

Otsailaren 24an, 19:00etan
Los Guggenheim taldearen
'Más pequeños que el
Guggenheim',
San Agustín kulturgunean.

:: ELORRIO

Otsailaren 22an, 22:00etan
Los Guggenheim taldearen
'Más pequeños que el
Guggenheim',
Arriolan.

:: ZORNOTZA

Otsailaren 22an, 21:00etan
Azar teatro taldearen
'El juicio de Dayton',
Zornotza Aretoan.

Dantza

:: DURANGO

Otsailaren 23an, 19:00etan
'AIKO erromeria',
Plateruenean.

:: ELORRIO

Otsailaren 24an, 17:00etan
Luna Teatro Danza taldearen
'Cenicienta y las zapatillas de
cristal', Arriolan.

Erakusketa

:: BERRIZ

Otsailaren 21era arte,
'Ilargia esnatu da',
Iraia Okinaren ilustrazioak,
Kultur Etxean.

:: DURANGO

Otsailaren 24ra arte,
'Gorakada antzerki taldearen
25 urteak',
San Agustín kulturgunean.

Martxoaren 3ra arte,
'Jose Felix Madariagaren
argazkiak', Museoan.

:: IURRETA

Otsailaren 22ra arte,
'Kafetako umeak. Eskola dute
ihesbide' argazkiak,
Ibarretxen.

Musika

:: DURANGO

Otsailaren 22an, 11:30etik
aurrera
Kalerarock,
Landakogunean.

Otsailaren 23an, 20:00etan
'Rafa Rueda eta Xabier Montoia',
Plateruenean.

Otsailaren 28an, 20:00etan
'Kantulagun kantuzaleen
txokoa', Plateruenea.

Martxoaren 1ean, 22:30ean
'Alvaro Llerena Martínez eta
Ovni Guarajé', Plateruenean.

Berbaldia

:: ABADIÑO

Otsailaren 27an, 17:00etan
Ertzaintzaren berbaldia,
'Prevención de robos en las
personas mayores', Txanportan

:: IURRETA

Otsailaren 22an, 18:30ean
'Café amargo-La vida de
los trabajadores del café en
Guatemala', Ibarretxen.

Ipuin kontalaria

:: BERRIZ

Otsailaren 23an, 12:15ean
'Karrika antzerki taldearen
'Klariona', Kultur Etxean.

:: IURRETA

Otsailaren 22an, 17:30ean
'Iziar Saenz de Ojer' kontalaria
umeentzako. 20:00etan
'Virginia Imaz' helduentzako.

:: ZALDIBAR

Otsailaren 25ean, 19:00etan
'Bego Alabazan' ipuin
kontalaria, Berbalagunetik
helduei zuzenduta, liburutegian.

Zinema

:: BERRIZ

Otsailaren 24an, 19:00etan
'Los miserables', Kultur Etxean.

Otsailaren 27an, 20:00etan
Fermin Muguruzaren **Next
music station**, Kultur Etxean.

:: DURANGO

Otsailaren 22an, 20:30ean
'Zinegoak, Bilboko
gay-lesbo-trans jaialdiko sei
film', San Agustinen.

Irteera

:: DURANGALDEA

Martxoaren 2an, 11:00etan
'Sagardotegira irteera',
Berbalagunetik antolatuta.
Izen-ematea otsailaren 25era
arte: euskaltegietan, Berbaron,
Hizkuntza Eskolan, 639 400 789

:: IURRETA

Martxoaren 9an, 12:00etan
'Sagardotegira irteera',
Maspetik irtenda. Izen-ematea:
Gauargi tabernan.

Tailerra


:: DURANGO

Otsailaren 23an,
10:00etatik 19:00etara
'Bizitzaren soinuaz esnatzea',
Dharananda Yoga Zentroan.

Lehiaketa

:: DURANGO

Martxoaren 8ra arte, **Maketa
Lehiaketa**. Parte hartzeko, 3
kanta bidali daitezke: *maketa.
udalgaztedi@gmail.com*.



:: DURANGO | ZUGAZA

1. aretoa: Hitchcock

Zuzendaria: Sacha Gervasi

- barikua 22: 22:00
- zapatua 23: 22:30
- domeka 24: 21:30
- astelehena 25: 22:00
- martitzena 26: 20:00

Movie 43

- barikua 22: 19:00
- zapatua 23: 19:30
- astelehena 25: 19:00

2. aretoa: Movie 43

- zapatua 23: 17:00
- domeka 24: 17:00/21:00
- martitzena 26: 20:00

Volver a nacer

Zuzendaria: Sergio Castellitto

- barikua 22: 22:00
- zapatua 23: 22:30
- astelehena 25: 22:00

UMEEN ZINEMA

1. aretoa: Blackie & Kanuto

Zuzendaria: Francis Nielsen

- zapatua 23: 17:00
- domeka 24: 17:00

:: ELORRIO | ARRIOLA

La noche más oscura

Zuzendaria: Kathryn Bigelow

- zapatua 23: 22:30
- domeka 24: 20:00
- astelehena 25: 20:00

:: ZORNOTZA

Mama

Zuzendaria: A. Muschietti

- zapatua 23: 19:30/22:30
- domeka 24: 20:00
- astelehena 25: 20:00

UMEEN ZINEMA

Ice Age 3D

Zuzendariak: S. Martino eta
M. Thurmeier

- zapatua 23: 17:00
- domeka 24: 17:00

10 HAMARREKO MENUA

EGUNEKO MENUA 10€ (egunero menu vegetarianoa aukeran) /
MENU ERDIA 7,50€ / UMEEN MENUA 8€ / UMEEN MENU ERDIA 6€ /
ZAPATUETAKO MENUA 13€ / ZAPATUETAKO UMEEN MENUA 10€ /
ZAPATUETAKO UMEEN MENU ERDIA 8€ /
MENU TXARTELAREKIN MENUA 9€ /



10€
HAMARREKO
MENUA



Denborapasak

ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguztzeneko 17:00ak arteko epea

1	8		2	6	9
	3			7	1
	1		8	5	
	3	4	5	8	
			7	9	
	7		6		8
	5		3		6
	1	8			9
			5	6	7
					2



> **Eider Andrinua Elorzak** 7 urte bete ditu otsailaren 19an. Zorionak politte! Mosu handi bat familiaren partez!



> Urtiek aurrera jun arren beti izango zara gure **Oihanetxu!** 27 txokolatezko musu Iraide, Nagore eta gainontzekoon partez!



> Zorionak **Jon** eta osaba Unai, ondo pasau eguna eta txokolatada nahi dugu! Basabe eta Eguen danon partez!



> Zorionak **Maddi!** Ondo pasau zure urtebetetze egunean, eta ez jan atzakalik! Mosu potolo bat! Beñat eta Ainhoren partez.



> Otsailaren 23an etxeko txikiak urtebete beteko du. Zorionak **Maren!** Joseba, Amets, aita eta amaren partez!



> **Julene**, pampintxo zoragarri honen bigarren urtebetzea da domekan. Zorionak eta bi mosu potolo etxeko danon partez!



> Zorionak **Jare!** Urte bat gurekin eta gure bihotza irabazi duzu irribarrearekin! Musu popoloak! Aratz, Kimetz, ama eta aita.



> Dalmata polit honek, bihar 3 urte egingo ditu. Zorionak **Iraia!** Aita, ama eta Markelen partez! Ea opari asko jasotzen dituzun!

2	4			5	6	7		
			2			1	3	9
	3	2	7					
	1		4		9			3
		4		8		9		2
		9	8	6				
	6					8	7	
	9		1	8	3			5
	7			1			9	4



> Zorionak **Urko!** 2 urte beteko ditu otsailaren 26an. Musuak izeko, osaba eta Oinatzen partez! Jarraitu hain terremoto izaten!



> Superretan babero digitalak daudela esaten genizun, aia, aia, aurten gosaria prestatzen dizu jada! Zorionak **Txarri!**



> Iaz hamar urte, aurten 11 direla badakigu, baina zenbat Bubak? Matematikak Barcenaz bezala gaizki... Zorionak **Ane!**

3		4		5	8	9	3	
							4	
		7		3	4		1	
			3	4		8		
		8		9	5	1	6	3
			6	3	8		4	7
		9				3		8
		8	6	1	7	4	2	3
					9	6	7	2
								1

ESKELAK



Luis Angel Zarate Etxebarria

GUKA! euskalgintzako bilguneko kide Koldo Zarateren aita

Une latz honetan gure doluminak familia osoari



BOTIKAK

- BARIKUA, 22**
09:00-09:00
• **BALENCIAGA** (Ezkurdi Plaza 8 - Durango)
- ZAPATUA, 23**
09:00-09:00
• **CAMPILLO** (Montebideo 24 - Durango)
09:00-13:30
• **BALENCIAGA** (Ezkurdi Plaza 8 - Durango)
• **DE DIEGO** (Intxaurrondo 22 - Durango)
• **NAVARRA** (Artekale 6 - Durango)
• **UNAMUNZAGA** (Muruetatorre 2C - Durango)
• **SAGASTIZABAL** (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
• **BAZAN DIAZ, VALENTIN** (Uribarri 5 - Durango)
• **IRIGOIEN** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
• **LARRAÑAGA-BALENTZIAGA** (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
• **URIZAR** (Gabiola 2 - Berriz)
- DOMEKA, 24**
09:00-09:00
• **DE DIEGO** (Intxaurrondo 22 - Durango)
09:00-22:00
• **EGUREN, ISABEL** (Trañaabarren 15 - Abadiño)
- ASTELEHENA, 25**
09:00-09:00
• **MUGICA** (Andra Maria 9 - Durango)
- MARTITZENA, 26**
09:00-09:00
• **NAVARRA** (Artekale 6 - Durango)
09:00-22:00
• **LOPEZ DE ARETXAGA** (Torresolo 4 - Abadiño)
- EGUAZTENA, 27**
09:00-09:00
• **SAGASTIZABAL** (Ask. Etorb. 19 - Durango)
- EGUENA, 28**
09:00-09:00
• **GAZTELUMENDI** (J.A. Abasolo 2 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS DEIAK 112
GURUTZE GORRIA 94 681 09 49
OSAKIDETZA 94 600 72 00
ERTZAINZA 94 466 93 00
- GARRIAK**
EUSKOTREN 902 54 32 10
BIZKAIBUS 94 448 40 80
PESA 902 10 12 10
CONTINENTAL AUTO 945 286 466
- TAXIAK**
ABADIÑO 94 681 44 70
MATIENA 606 459 988
DURANGO GELTOKIA 94 681 10 01
ELORRIO GELTOKIA 94 682 00 40
J.L. URIARTE 670 402 002
I. ESTEBEZ 670 678 273
M. GALEANO 670 409 330
IURRETA 94 620 15 65
TAXI AUZUNEA 688 618 690
BERRIZKO AUZO TAXIA 620 022 800

UDALAK

- ABADIÑO 94 621 55 30
ATXONDO 94 682 10 09
BERRIZ 94 682 45 84
DURANGO 94603 00 00
ELORRIO 94 658 27 12
GARAI 94 681 63 93
IURRETA 94 620 12 00
IZURTA 94 681 35 48
MALLABIA 943 17 14 61
MAÑARIA 94 681 89 98
OTXANDIO 945 45 00 20
ZALDIBAR 94 682 70 16

UDALTZAINGOA

- ABADIÑO 94 621 55 33
BERRIZ 94 682 40 36
DURANGO 94 603 00 00
ELORRIO 94 682 02 18
IURRETA 94 620 08 88

EGURALDIA

1º 4º ZAPATUA ☁	1º 5º DOMEKA ☁
2º 5º ASTELEHENA ☁	1º 7º ASTEARTEA ☁

AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA



Abadiño (Traña-Matienea)
Eguaztetenetan 10:00etatik aurrera

Durango
Zapatu goizetan

Zornotza
Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

Letxuga 0,80 euro
Porruak 1,80 euro/tx
Azenarioak 1,50 euro/tx
Azalga 2 euro/kg
Aza 2 euro/kg
Koliflorra 3 euro/kg
Kalabaza 2,20 euro/kg
Kiwia 3 euro/kg
Tomate kontiserba 3,90 euro
Arrautzak 3,80 euro/dz
Idiazabal gazta 17 euro/kg
Espeltazko ogia 3,60 euro

1	2	7	9	6	8	5	3	4
6	5	3	4	2	7	1	9	8
4	8	9	3	1	5	7	2	6
2	7	4	1	8	3	9	6	5
3	9	1	5	2	6	4	8	7
5	6	8	7	9	4	3	1	2
8	1	5	4	3	2	6	7	9
9	2	4	2	6	7	1	8	3
7	3	7	6	5	8	6	4	1

4	6	3	5	1	9	2	8	7
9	5	7	8	3	7	8	1	6
1	7	2	7	4	6	3	5	9
7	1	4	9	5	8	6	2	
2	9	6	1	8	7	4	3	5
3	8	5	6	2	4	9	7	1
5	4	9	8	6	1	7	2	3
6	3	1	4	7	2	5	9	8
8	7	2	9	5	3	6	1	4

2	1	7	9	5	8	3	4	6
3	5	6	4	7	8	9	1	5
8	9	4	6	1	3	2	7	5
5	2	8	1	3	4	9	6	7
9	4	3	2	6	7	1	5	8
7	6	1	8	9	5	4	3	2
4	3	2	5	8	6	7	1	9
1	8	5	7	4	9	6	2	3
6	7	9	3	2	1	5	8	4

EDERTASUN GIDA



Amaia Salazar

Nukleo ileapaindegia dauka Elorrión

Negua amaitzear dago. Ileaak sufritzen al du neguko eguraldiarekin?

Udan baino gutxiago sufritzen du. Kresalak, kloroak, eguzkiak... Min handia egiten diote. Edozelan ere, neguan nahiko sufritzen du ileak. Gehiagotan sikatzen dugu lehorgailuagaz, hezetasunagatik gehiagotan plantxatu... Ilea deshidratatu egiten da.

Horren aurrean, tratamendu berri bat daukazu Nukleon, ezta?

Bai. Tratamendu berri bat jaso dugu, botoxaren antzeko zerbaite da; ilea lehenengo saiotik berreskuratzen du. Maila altuko kosmetikako printzipio aktiboen kontzentratu berrizale bat da.

Zelan eragiten du?

Ilean ipintzean, lehenengo aplikaziotik jada, hidratatu eta konpondu egiten du. Distira eta leuntasuna ematen ditu, eta kizkurak kentzen ditu. Tratamendu hau pertsonalizatua da, ilean eragindako kaltearen arabera.

6 AHOLKU ZURETZAT

- 1 Udan baino gutxiago, baina neguan ere sufritzen du ileak
- 2 Gehiagotan lehortuz eta plantxatuz, ilea deshidratatu egiten da
- 3 Horren aurrean, tratamendu berri bat jaso dugu Nukleon
- 4 Tratamendu hau, maila altuko kosmetikako kontzentratu bat da
- 5 Ilean ipintzean, hidratatu eta konpondu egiten du
- 6 Distira eta leuntasuna eman, eta kizkurak kentzen ditu



ILEAPANDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

A

PRESTATU ZURE AZALA:

- **Azido hialuroniko**ko tratamendua
- Zimurrak berehala betetzen ditu
- Hidratazio sakona
- Ehunen erredentsifikazioa
- Kolagenoaren estimulazioa

63 €tik 44 €ra
% 30^{eko} deskontua otsailean

Ikusi eta sentitu zure burua hobeto!

Goienkale 16-1.esk • 48200 Durango
Tel.: 94 681 73 80 • Mug.: 639 375 474



Profesional onenak zure zerbitzura!



“Nire lagunek esaten duten moduan, ni euskal-amerikar bat gehiago naiz”

Boiseko ikastolako umeekin Sanblasetako opilak egin ditu duela gutxi Iruene Sanchez irakasle berriztarrak. Gustura dabil Boisen: euskal kultura modu berezian bizi duten ingurune horretan bere saltsan bizi dela dio.

> AMAIA UGALDE

Euskal kultura mantentzeko asmoagaz sortu zuten duela hamabost urte Boiseko ikastola. Hiru eta sei urte bitarteko umeak joaten dira bertara, eta euren irakasleetako bat da Iruene Sanchez. Berriztik Boiseran 8.000 kilometro baino gehiago daude, baina galderak azkar batean erantzun ditu teknologia berriei esker.

Zelako bizimodua daroazu Boisen?

Nahiz eta Boise hiriburu bat izan, ez da AEBetako beste hiriak bezalakoak. Herri txikiago baten xarma dauka. Aste barruan lan egiten dut arratsaldeko laurak arte, eta gero palan ibiltzen gara, Euskal Museoa ematen ditut eskolak, pisukideekin paseatzera joaten naiz, trago batzuk hartzera...

Duela lau urte bertan egon zinen, eta errepikatzea erabaki duzu.

Bai, 2008an etorri eta hamabost hilabete eman nituen bertan. Gero Londresera joan nintzen, eta 2012an Euskal Museotik galde-tu zidaten ea bueltatuko nintzatekeen, eta hemen nago berriro. Hemengo lagunek esaten didaten moduan, ni euskal-amerikar bat gehiago nahiz, nire saltsan nago eta inguruko euskaldun gehienak ezagutzen ditut.

Zelakoa da bertako ikastola?

Izena Ikastola da, baina berez, haurreskola baten modukoa da. Hiru eta sei urte bitarteko umeak dauzkagu. Guraso euskaldun batzuek euren umeak elkarregaz egoteko eta euskal kultura mantentzeko sortu zuten

1998an. Orain, 21 ume ditugu, eta gela bitan banatuta daude.

‘Miss Iruene’ deitzen dizute?

Ez! Euskaldunak ez diren umeen guraso batzuk bai, *Miss Iruene*, baina bestela Iruene edo txikienek *teacher*.

Zelan bizi dute euskara bertako gurasoek eta umeek?

Aurtengo taldea eta orain dela lau urtekoa oso ezberdinak dira. Orain dela lau urte, umeek euskaraz egiten zuten gehiena, etxean gurasoek euskaraz hitz egiten zirelako. Aurten, lau umeren gurasoek badakite euskaraz, baina ez daukate erraztasun handirik umeekin euskaraz egiteko, eta ez da erraza. Saiaitzen naiz, baina beraien artean ez dute asko egiten... *Eman, hartu, kontuz, ez egin korrika*, eta horrelakoak erabiltzen dituzte.

Diasporako jendea euren zuztarrekin harro egoten dela esaten da. Halakorik igarri duzu?

Hemengo lagunei galdetuz gero, inork ez du esango amerikanoak bakarrik direnik; euskal-amerikanoak dira. Denek dakite beraien familia nondik datoren eta zeintzuk diren inguruko herriak. Gero, beti dauzkate lauburuak zintzilik edo Euskal Herriarekin zerikusia daukaten tatuajeak. Umeei izen euskaldunak ipintzen dizkiete, eta abizen euskalduna galdu badute, askok umeen bigarren izena bezala jartzen diete, adibidez, Parker Arana Anderson edota McKenna Kattalin... Hemengo euskaldunek Euskal Herriko askok baino gehiago sentitzen dituzte beraien sustraiak eta gehiago borrokatzen dira beraien hizkuntzari eta ohiturei eusteko.

Euskal kulturari buruzko gauza asko irakatsiko dituzue.

Orain dela gutxi danborrada ospatu genuen ikastolan. Gero, Santa Ageda ere egin genuen eta gurasoentzako San Blas opilak prestatu genituen. Datorren astean, pixka bat berandu, baina Lantzeko inauteria egingo dugu, eta gurasoentzako abesti batzuk abestuko ditugu.

Korrika ere prestatuko duzue.

Bai! Ikastolako umeak, gurasoak eta Boiseko hainbat lagun batu gara Euskal Etxean. Aurreko urtean 200 lagun inguru batu ziren. Korrika egin, eta gero taloak jango ditugu. Nagusiok 15\$ ordainduko ditugu, eta diru horrekin, hemengo neska batzuk Euskal Herriera joango dira, han euren euskara hobetu eta gero hemengo herrietan irakatsi dezaten.

Londresen ere egozara. Euskal Herri-tik kanpo joateko irrika izan duzu beti?

Bai... Gaztetan irten nintzen eta orain, nahiz eta herrimin hori gero eta handiagoa izan, ez da erraza bueltatzea. Beti pentsatzen dut Euskal Herriera bueltan joateko denbora izango dudala eta orain loturarik ez daukadan honetan, ahalik eta gauza gehien ikustea nahi dut.



Euskara ikastea: 94,8 milioi

94,8 milioi euro. Diru hori inbertitzen du urtero Jaurlaritzak, euro gora, euro behera, administrazioko langileek euskaraz hitz egiten ikas dezaten. UPyDk Legebiltzarrean eskatutako datua da eta El Mundo egunkariak erreportaje zabalago egiteki erabili zuen. Inbertsio hori egiten da, herritarrek askatasuna izan dezaten zerbitzu publikoetan hizkuntza aukatatzeko. Alderdi unionista horrek eta egunkariak irakurketa interesatua egin gura dute, ziurrenik. UPyDk obsesioa du duplizitate edo zerbitzuen bikoiztasunekin. Eta noski, balizko euskal erakunde guztiak, edo espainolak ez direnak, sobera daudela defendatuko dute hemen eta Murtzian. Bikoiztasuna ere hizkuntzetan ikusten dute: Espainia osoan eta bakarrean gaztelera badakigu, zertarako gastatuko dugu dirua hizkuntza periferikoak ikasteko?

Ez dira konturatzen fabore itzela egiten digutela unionista austero horiek; euskaldun izaten jarraituko dugulako, aberats edo pobre. Eta agerian geratzen delako hezkuntza euskaldun batek bermatzen duela, besteak beste, herritarrek elebidunak izatea. “Euskara en libertad” aldarrikatzen dute. Alegia, euskaraz hitz egiteko hautua askatasunean hartu behar dela eta ezin daitekeela inposatu. Ba hori, nik eta Maneirok badugu euskaraz ala gaztelerez berba egiteko askatasuna, elebidunak garelako. Hizkuntza bakarrik dakien herritarrak ez dauka “euskara en libertad” egiteko askatasunik. 30 urte barru 95 milioi euro aurrezteko eta herritarren hizkuntza eskubideak “en libertad” errespetatzeko, gizarte euskaldundu beharko da. Elebidunok bakarrik garelako hizkuntza aukeratzeko askeak. Bestela, elebarraren diktadura, Txillardegik zioen moduan.

BAQUÉ Café

Hemen, Kafeari Baqué esaten diegu

Fundación BAQUÉ Fundazioa

DURANGO Udala Ayuntamiento

Jadanik **35**

CAMPOS BONITO DEL NORTE

BH Zirauna

FSB EK